




Altzagako jubilatuen elkarte osatu berri da eta daborduko 200 kide batu dira. Lokal bat gura dute. ▶5

Barrikak ezohiko argazkilaritza lehiaketa hartuko du ekainaren 14an. Jose Mari Albisuk horren nondik norakoak azaldu ditu. ▶15



hiruka

Uribe Kostako astekaria



16. zenbakia

2015eko
maiatzaren 14tik
maiatzaren 20ra arte



Maialen Lujanbio Zugasti
bertsolariagaz berbetan jardun dugu bere ibilbideaz eta bertsolaritzaz. ▶16

«Bertsolaritzaren eta euskararen geroa lotuta doaz»



SAKONEAN URIBE KOSTA

Eskualdeko sendabelarrak

Josu Aurrekoetxea algortarrak Uribe Kostako sendabelarren inguruko ikerketa burutu du EHUko Biologiako Gradu Amaierako Lanerako. Guztira, 16 herritar elkarriketatu eta eskualdean aurki daitezkeen 52 landare jaso ditu, horien erabilerak eta kontsumitzeko moduak deskribatuz. ▶22

HERRIZ HERRI GETXO

Badatoz San Isidro jaiak!

Hilaren 14tik 17ra bitartean izango dira Getxoko jaiak; bariku eta zapatu gauean autobus zerbitzua egongo da. ▶2

KULTURA LEIOA

Pop-rockeko finalistak

Lehiaketaren finalean lehiatuko diren taldeak hautatu dituzte; gainera, sari berezien irabazleak ere badakizkigu! ▶11

Sopelako kuadrillek euren egunik handiena ospatuko dute hainbat ekitaldigaz zapatu honetan, hilak 16. ▶7

Berangoko Udal Musika Eskolan izena eman daiteke uztailaren 30era arte; irakaskuntza ez-arautua da. ▶8

Plentzia eta Sopela lotzeko ordezkotzerbitzuaren azken autobusak 22:20an irtengo dira Plentziatik. ▶10

Gorliz Badiako triatloia izango da domekan. Atletiek ia 35 kilometro egin beharko dituzte, hondartza inguruan. ▶20

Getxo

Udako jaien atarian ospatuko dituzte Getxoko sanisidroak

Maiatzaren 14tik 17ra luzatuko dira sanisidroak; gauez autobus-zerbitzua egongo da.

Egunotan dira Getxoko San Isidro jaiak. Horrenbestez, hilaren 14an, eguenagaz, 17:30ean Geroa ikastolakoek pregoia irakurri eta txupina botako dute Malakaten. Ondoren, slackline-a eta buruhandiak, eta Itxas Argiaren ekimenez txokolatea banatuko dute bertaratzen direnen artean. Iluntzean, 21:00etan, MLL, Jarrera eta Ou Mama taldeen kontzertuak izango dira. Hurrengo egunean, barikuagaz, San Isidro eguna da. Hala, ekitaldiz gainezka egongo da Getxo 17:00etatik aurrera. Hasteko, idi-probak egingo dituzte probalekuan, 17:00etan. Ordu berean, grafiti-erakusketa egingo dute Benta inguruan. Ostean, umeentzako jolasak, Malakaten; 20:00etan pala txapelketaren finala jokatu dute kiroldegian. Iluntzean suzko zezena ibiliko da Malakaten neska-mutil txikien gozamenarako, eta 23:00etan Emon taldeak eta Prin'tzi anaien musikagaz alaituko dute aparkalekua.

Zapatuan, goizeko 11:00etan puzgarriak ipiniko dituzte Malakaten, ondoren fanfarrea abiatuko da bertatik, eta 14:30ean herri-bazkari animatua egingo dute aparkalekuan. Arrasti-



Txosnak, ohi den legez, Andra Mari kiroldegiko aparkalekuan ipiniko dituzte.

ko 07:00etan poteo girotua hasiko da aparkalekuan, eta Malakateko tabernetan amaituko da. Pozpo eta Lintxo pailazoez umei barrea eragingo diete 20:00etan horien ikuskizuna ere Malakaten izango da, eta 21:00etan Itxas Argiak ohiko dantzaldia egingo du kiroldegian. Azkenik, 23:00etan Oxabi taldearen erromeriak dantzan ipiniko ditu txosna inguruan batutako neska-mutilak. Domekan, berriz, herri-azoka hartuko du aparkalekuak, 11:00etatik aurrera. Ordubete beranduago, pin-

txo-poteoa egingo dute txosnetan. 13:00etan norberaren punteria proban jartzeko tiragoma txapelketa egingo dute. 17:00etan Getxoko Patinaje Show taldeak erakustaldia egingo du kiroldegian. Azkenik, aurtengo sanisidroeia amaiera emateko, Dangiliske taldeak dantza-plaza egingo du 18:30ean aparkalekuan. Barikuan eta zapatuan doako autobus-zerbitzua egongo da 45 minutuz behin: 23:00etatik 05:00etara barikuan; eta 23:00etatik 06:00etara zapatuan. ◀

Egitaraua

Maiatzak 14, eguna

17:30 Txupina botatzea, Malakaten.
18:00 Slackline-a, buruhandiak eta txokolate-dastaketa, Malakaten.
21:00 Kontzertuak: MLL, Jarrera eta Ou Mama; aparkalekuan.

Maiatzak 15, barikua

17:00 Idi-probak, aparkalekuan.
17:00 Grafiti-erakusketa, Benta.
17:30-19:30 Umeentzako jolasak, Malakaten.
19:00 Mus txapelketa, Benta.
20:00 Pala txapelketaren finala, kiroldegian.
21:00 Suzko zezena, Malakaten.
23:00 Kontzertuak: Emon eta Prin'tzi anaien; aparkalekuan.

Maiatzak 16, zapatua

11:00 Puzgarriak, Malakaten.
12:30 Fanfarrea, Malakatek abiatuta.
14:30 Herri-bazkaria, aparkalekuan.
19:00 Poteo girotua, aparkalekutik abiatuta.
20:00 Pozpo eta Lintxo pailazioak, Malakaten.
21:00 Itxas Argiaren dantzaldia, kiroldegian.
23:00 Kontzertua: Oxabi; aparkalekuan.

Maiatzak 17, domeka

11:00 Herri-azoka, aparkalekuan.
12:00 Pintxo-potea, txosnetan.
13:00 Tiragoma txapelketa, aparkalekuan.
17:00 Patinaje Show Getxo klubaren erakustaldia, kiroldegian.
18:30 Dangiliske taldea, aparkalekuan.
 Barikuan eta zapatuan doako autobus-zerbitzua egongo da, gau osoan: 23:00etatik 06:00ak arte, 45 minuturik behin.

Itzubaltzetako eta Algortako jaietarako irudien bila dabilta

Uztailaren 29tik abuztuaren 2ra bitartean izango dira Algortako San Inazio jaiak, eta abuztuaren 2an eta 4tik 9ra Pinuetakoak eta Itzubaltzeta / Romokoak. Horiei begira, auzo bietako jai-batzordeek festei begirako hainbat lehiaketa jarri dituzte martxan. Algortakoek aurtengo jaiak iragarriko dituen kartela bilatu nahi dute; hala, ekainaren 4ra arte aukera dago proposamenak helarazteko. Horretarako, parte hartzaileek Eztabaida-gunera jo beharko dute. Aipatutako egunean epaimahaiak hiru kartel aukeratu, eta jendeak gogokoena bozkatzeko aukera izango du ekainaren 11ra arte, Internet bidez. Irabazleak 150 euro jasoko ditu. Itzubaltzeta / Romo eta Pinueta-

ko jai-batzordeak, oster, lehiaketa bi antolatu ditu: musika-taldeen lehiaketa eta diseinu-lehiaketa. Azken horretan, festei irudia jarriko dieten hiru elementu sarituko dituzte: jai-kamisetak alaituko dituen marrazkia, zapie-tan erreproduzitzeko logoa eta 3.000 jai-liburuxken azalerako irudia. Hiru kategoria horietan lehiatzeko epemuga maiatzaren 22a izango da, 13:00ak arte; eta saria, berriz, ehuna euro. Musika-lehiaketari dagokionez, CDak ekainaren 17ra arte aurkeztu ahal izango dira. Nagusituko den taldeak jaietan banda ezagun batez jatzeko aukera izango du eta 150 euroko saria. ◀

harremanetarako: erromokojaibatzordea@gmail.com
aixerota.jaibatzordea@gmail.com

Udal igerilekuak eta gimnasioa zabalik, goizeko 07:30etik

Algortako Fadura kiroldegiko igerilekuak eta fitness eta muskula-zioako gimnasioa irekitzeko ordutegia luzatu du Getxo Kirolak-ek. Hala, bi instalazio horiek goizeko 07:30etik aurrera erabili ahal izango dira, harik eta itxi arte. Udalak jakinarazi dutenez, kirol-instalazio horietako erabiltzaile ugari behin baino gehiagotan eskatu du hori hala izatea, euren lanaldia hasi baino lehenago jardura fisikoa egin ahal izateko; horrenbestez, udaleko kirol-erakundeak ordutegia moldatzeko erabakia hartu du. Bestalde, Getxoko Udalak gogorarazi duenez, gainontzeko kirol-instalazioak 08:00etatik 21:30era egongo dira zabalik. ◀

info +: www.getxo.eus

Eskulangintza Azokan izena emateko epea zabalik

Urtero legez, Getxoko Kultur Etxeak Eskulangintza Azoka egingo du azaroaren 27, 28 eta 29an. Aurtengoa hogeita hamabigarren edizioa izango da, eta eskualdeko, Bizkaiko, Euskal Herriko eta Espainiako eskulangleak bertaratzeko deia egin du Udalak. Hala, azokan parte hartu gura dutenek ekainaren 30era arte izango dute eskabideak aurkezteko aukera. Aurreko urteetan bezala, azoka Areetako Xake plazan izango da, karpapean, eta doako sarreragaz. Ordutegia honakoa izango da: 11:00etatik 02:30era goizez, eta 05:00etatik 09:00etara arrastiz. Zapatuetan ordutegia 21:30era arte luzatuko da. ◀

harremanetarako: artesia@getxo.net

Getxo

Udalerria aktibatzeke hilez hileko ekimenak

Merkataritza-eremuen dinamizazioarako

programa martxan da; urrira arte luzatuko da.

Joan den barikuan, hilaren 8an, eman zioten hasiera aurtengo GetxoAktibaTU! programari. Aurtengo hirugarren aldia da egitasmoa martxan jartzen dutena, eta horri ekitako, kontzertu terapeutiko bat egin zuten joan den hilaren 8an Algortako Inckorpora psikologia eta osasun-zentroan; bertan, gongak, kaiku tibetarrak eta erlaxazioarako beste tresna batzuk erabili zituzten. Lehenengo jarduera horregaz, tokiko kirol-klubek, merkatariek, profesionalek eta ostalaritza-establezimenduek bultzatutako kirol, kultura eta aisialdi osasungarriko jardueren programari ekin zioten. Hala, urrira bitartean, tailerrak, erakusketak, klaseak eta beste hainbat ekintza egingo dituzte udalerrian. Programaren helburua jarduera sortzea



Jarduerak hilez hil antolatuko dituzte eta herritarren proposamenak kontuan izango dituzte.

eta bertoko merkataritza ezagutzera ematen laguntzea da, besteak beste. Jarduera horien denen egutegiak hilez hil osatzen joango direla jakinarazi dute arduradunek; hala ere, maiatzarako hamaika ekimen antolatu dituztela azaldu dute: bonsaiak hazi eta zaintzeko, pintura eta umeen masaje

tailerrak; eta taichi eta chikung klaseak, barbarako. Maiatzeko programa hilaren 30ean amaituko da, Athletic eta Bartzelonaren arteko Errege Kopako finala ikusteko pantaila erraldoiak jarrita. Egunean zehar kale-animazioa egongo da. ◀

info +: www.getxoaktibatu.com

Tokiko ekonomia dinamizatzeko, diru-laguntzak

Maiatzaren 29ra arte zabalik egongo da udalerriaren dinamizazio ekonomikorako diru-laguntzak eskatzeko epea. Horretarako, Udalak 223.000 euroko aurrekontua aurreikusi du. Diru-laguntzak pertsona fisikoei eta juridikoei emango zaizkie, diruz lagundu beharrekoa den jarduerarako Getxoko udalerrian egiten bada eta udalerriko jarduera ekonomikoaren onurarako bada. Eskerak udal-bulegoetan aurkeztu beharko dira.

Getxoko merkatarien elkarteek dinamizazio ekonomikoaren jarduerak egin ditzaten 160.000 euro bideratuko dituzte. Halaber, Udalak bultzatu nahi dituen eremu estrategikoetan aditu eta enpresen elkarteek dinamizazio ekonomikoaren jarduerak egiteko eta ongizatearen eta kultura industrien garapenerako 30.000 euro bideratuko dituzte. Halaber, nortasun juridikorik ez duten elkarteek dinamizazio ekonomikoaren jarduerak egiteko eta jarduera turistiko erregularrak martxan jartzeko 21.000 euro eta 12.000 euro bideratuko dituzte, hurrenez hurren.

info +: www.getxo.eus/getxolan
harremanetarako: getxolan@getxo.eus
944 660 140

BIZKAITARROK

garaile!

para decidirlo

todo

VOTA

EMAN BOTOA

Asier Vega

Meritxell Elgezabal

José Unanue

Arantza Urkaregi

ehbildu

Getxo



Droga-mendekotasuna, tabakoa, alkohola, sare sozialak, sexua eta hiesa izan dituzte berbabide.

Adikzioei aurrea hartuz

4.800 ikasle inguruk parte hartu dute Udalak antolatutako adikzioen prebentziorako tailerretan.

Getxoko Udalak ezagutzera eman du 2014. urteari dago-kion Adikzioen Prebentziorako Zerbitzuaren txostena. Hogei ikastetxetako Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko 4.800 ikaslek baino gehiagok parte hartu zuten Udalak antolatutako adikzioen prebentziorako tailerretan, iaz. Horietan, droga-mendekotasunaren, sare sozialen, alkoholaren, sexuaren eta hiesaren inguruko gaiak jorratu zituzten.

Batetik, Lehen Hezkuntzako 2.994 ikaslek parte hartu zuten egitasmoan. Tailerrak 147 gelatan egin zituzten, eta 172 irakaslek parte hartu zuten. Adin-tarte horretako neska-mutilek hainbat ekintza egin zituzten, berba-

rako: «Lagunekin baratzean» izeneko programa. Horretan, barazki-multzo baten eguneroko egoeratik abiatuta, neska-mutilen arteko harremanen garapenean oinarritu ziren. Bestetik, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko 1.873 ikaslek ere parte hartu zuten. Horretarako, 86 gela behar izan zituzten eta 95 irakasleren parte-hartzea. Adin-tarte horretan ere hainbat ekimen antolatu zituzten, adib.: «Adikzio aurretik» izeneko zikloak ordezkatu zuen zinema-irakaskuntzaren gaineko bat; biek ezaugarri berdintsuak zituzten. Halaber, «Kerik gabeko gelak» proiektua egin zuten, Europar Batasunak sustatutako ekintza. Horregaz, ikasgelako guztiek eta irakasleak hilabetez ez erretzeko konpromisoa hartu zuten. Horren albotik, hainbat ekintza egin zituzten, erretzeko ohitura ahalik eta gehien atzeratzeko helburuagaz. Beste tailer batek sare sozialen erabilera jorratu zuen, besteak beste. ◀

info+: www.getxo.eus

Erandio

Udalak lokala utziko die Kukularrakoei

Kukularrako Auzo Elkartek udal lokala izango du auzoan, Udalak 2011n eraikitzeari ekin zion zentro zibikoan. Horrela adostu dute aho batez udal talde politiko guztiek; Udal Gobernuak landutako hitzarmenaren zirriborroan, hainbat aldaketa egin ostean. Izan ere, Udalak eta auzotarren elkartearen arteko negoziatzioek urte bi iraun dute. Legealdiko azken udal bilkuran jaso zuten Udalbatzaren onarpena. Jose Antonio Perez Espinosa PSE-EEko zinegotziaren arabera, «eraikinagaz bueltaka bi urte eman ostean, azkenean presaka eta era txarrean egin da dena». Halere, sozialistek lagundu egin zioten EAJk osatutako Udal Gobernuaren proposamenari, «auzokideen elkartegatik, ez hau zelan bideratu den moduagatik». Besteak beste, oposizioko indarrek honako aldaketak eragin dituzte Kuku-

larragaz sinatuko den hitzarmenean: Udalak behin betiko testua finkatu baino lehen, elkarteak haren berri izan eta aldaketak proposatu ahal izatea, gerora alegaziorik aurkeztu behar izan barik; lokaleko mantentze-lanen gastuak Udalaren ardura izatea eta ez elkartearena; eta, azkenik, hitzarmena sinatu aurretik auzo-elkarteak Kukularrako zentro zibikoa barrutik ikusi ahal izatea.

Hamaika urteko ibilaldia

Kukularran auzokideentzako lokala jartzeko lehenengo mozioa 2004an onartu zuen Udalbatzak, PSE-EE, PP eta EB taldeek eskatuta. 2006an, asmo handiko zentro zibikoaren proiektua aurkeztu zuen Udalak, eta 2011n lanak hasi zituzten. Orain arte, auzokideen lursailen mugakaz eta goi-tentsioko lineakaz arazo ugari izan da. ◀



Coriakoak bisitan izan ziren Astrabuduan, pasa den apirilaren 26an. Astrabudua Taldeak jakinarazi duenez, Erandiogaz senidetuta daude Extremadurako Coriako herritarrak, eta Les Herbiers-era bidean zihoazen (Frantzia), urtero legez. Hiru herriak senidetuta daude.

© ASTRABUDUA TALDEA



Hemengo eta Hango

GABI BASAÑEZ RUIZ
Abeltzaina

Babesgabetasuna

Zoritxarrez, pasa den astean berriro errepikatu da kontua: militantzia politiko baketsuagatik euskal gazte batzuk kartzelaratu dituzte. Kartzeleroak espainolak. Baina nortzuk joan dira euren bila? Teorian herria zaintzeko daudenak. Baina egia hori zortaz hasi eta oz amaitzen duen izena dutenak. Nazipeko Frantzian erresistentziako kideak atxilotzen zituztenak legez ari ziren duda barik. Eta Indiako zipaioak independentistak atxilotzen zituztenean ere. Izan ere, arraroa da munduan legez kanpo aritu izan edo aritzen den polizia. Kontua da, berriz, legea zilegia den edo ez. Bitartean ez dago indar nahikorik ekimen fazista horiek lotzeko. Berba luze eta labanez aparte... Nork babestuko gaitu? ◀

Merkataritza berdea sustatu gura du Udalak

Erandioko Udal Merkataritza Atal-ak proiektu bi bultzatu berri ditu, «merkataritza dinamizatze eta etengabeko hobekuntza aurrera egiteko tresnak errazteko» zein «merkataritzaren lehiakortasuna areagotzeko» asmoz. Alde batetik, Merkataritza Berdea proiektuari heldu dio beste urte batez, Aldundiagaz eta Bizkaiko Merkataritza Enpresari Konfederazioagaz ba-

tera. Beste aldetik, Erandioko Udalak kontu-ikuskaritza energetikoa eskaini die ile-apainketa eta ostalaritza sektoreei. Programa bi horietan, «merkataritza arduratsuagaz eta ingurumenagaz konprometitutako» 30 establezimenduk parte hartu dute. Merkataritza Berdea proiektuan, daborduko 60 dira ekonomia iraunkorreko estrategiaren aldeko apustua egiten dutenak. ◀

Erandio



Berrehun lagunek baino gehiagok osatzen dute elkarte jaio berria.

«Batzeak indarra dakar, denon alde»

Altzaga-Erandio Nagusien Elkartea sortu berri dute bertako hainbat jubilatuk, kolektibo horretarako ekimenak antolatzeke asmoz. Pilar Garcia, Luis de la Hera, Jose Luis Castaños eta Eusebio Egiguren Zuzendaritzako kideek eman digute horren berri.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Azken urteotan BBK-k Gizarte Ekintza gutxitu duenez, Altzagako Jose Luis Goioaga etorbideko lokalean, ia jarduerarik ez dagoela aipatu dute, penaz, jubilatuen elkarteke kideek. Horren aurrean, euren kabuz antolatzeari eta aisialdia eta autoestimua lantzeari ekin gura diote. 200 bat lagun batu dira, eta lokala dute orain lehentasun.

Zelan osatu zenuten elkartea?

BBK-k jarduera nahikotxo zuen loka-

lean, orain bizpahiru urtera arte, baina Europak aginduta Gizarte Ekintza utzi behar duenez, badabil ekimenak kentzen. Lokala arrastian baino ez dute zabaltzen, 15:30etik 19:30era; eta hara joaten jarraitzen dute gizon-andreek. Kartetan jokatzeko dute, berba egin; eta komunera korrika joatea eragiten duen kafea dute, edan gura badute. Batzuk lo gelditzen dira bertan, aspertuta. Ikuskizun beldurgarria da. Kolektibo horrek ez dauka ezer Altzagan. Egoera horretan, zeozer egin beharko genukeela pentsatu genuen. Lehen bileran 40 bat batu ginen berba

egiteko, baina hasieran inork ez zuen gura ardura bere gain hartu. Eskerrak emakumeak atera zirela eta beste batzuk hamar laguneko behin-behinekoko zuzendaritza-batzordea osatu genuen. Estatutuak egin ditugu, elkartea Jaurilaritzan erregistratu dugu, eta orain zain gaude kuxkak edo Udalak lokala utz diezagun, jarduerak antolatzeko hasi ahal izateko, urritik aurrera. Daborduko 210 bazkide gara.

Noiz hasi zineten batzen?

Martxoaren 17an egin genuen lehenengo batzarra, batzokian. Handik hi-

labetera San Agustin elizan hasi ginen batzen, zelanbait utzi diguten gune neutral bakarra. Apirilaren 21ean, Batzar Nagusia egin genuen udal merkaturuan, eta han ia 200 izan ginen. Bertan izendatu gintuzten, eta egindakoa eta egitasmo berriak azaldu genituen. Altzagan dagoen jende kopururako oso positiboa da 210 pertsona batu izana.

Bazkidetzeko zer egin behar da?

Beste lokalik ez dugunez, utzi diguten San Agustin elizako lokalera eguaztean edo eguenean etortzea 18:00ak eta 19:00ak bitartean, eta izena ematea. Halere, ordutegi hori maiatzean izango dugu, gero oporrak datoz, eta ez dakigu. Interesdunak honako baldintzaren bat bete behar du: 55 urte edo gehiago izatea, jubilatuta edo aurrez jubilatuta egotea, pentsionista izatea, edo aurreko baten senar-emaztea izatea. Urteko kuota 10 eurokoa da.

BBKri eta Udalari eskatu diezue Goioagako lokala edo besteren bat uztea?

Bai. Oraingoz Udalagaz ez dugu berbarik egin, ofizialki. Aldaketa garaian daude. Balizko alkatea dugu, baina aukeratu arte, ez dugu alkaterik izango. Itxaron behar dugu, Udalbatza berriro eta norekin berba egin izateko. Halere, Udalaren babesa badugu: bilerak udal lokalean egin zen, elkartea izan aurretik. Ez da arazorik izango.

Zeintzuk dira urrian egin gura dituzuen ekimenak?

Azpitaldeak antolatu nahi ditugu aurretik, bakoitzak lan txikiren bat har dezan, programazioan sartzeko. Besteak beste, postontzi bat ipiniko dugu norberak gurako lituzkeen jarduerak proposa ditzan, ikusteko zeintzuk diren gehien eskatzen direnak. BBKgaz egiten ziren hainbat gauza aterako dira: eskulanak, pintura, gimnasia, yoga, txangoak, kultur irteerak, hitzaldiak... Jendeak zer gura duen jakin nahi dugu. Eta zalantzati dagoena hurbildu, eta denon alde egin dezan: batzeak indarra dakar. ◀

Enplegua lortzeko tailerrak eta laguntzak emango ditu Udalak

Norberak lanposturen bat topatzeko edo bere enpresa eratzeke hainbat ekimen jarri dute bidean Erandioko Enplegu, Ekonomia Sustapena eta Tokiko Garapena Arloak eta Erandioko Behargintzak. Besteak beste, alde batetik, enpresa sortzeko edo jarduera hasteko udal laguntzak eskatzeko epea zabaltzeko dute, azaroaren 30era arte. Gehienez jota, enpresa

bakoitzak 3.000 euro lortu ahal izango ditu. Bestalde, dozena bat ikastaro eta tailer emango dizkiete doan, Behargintzan lan bila dabiltzan eta interesa duten pertsonen, beharra topatzeko tresna eta trebetasun berriak ezagutu ditzaten. Tailerretarako, aurretik izena eman beharra dago. ◀

info+: erandio.net / 944 175 616
ekintzailatza@erandioko-udala.net

Nazioarteko Lankidetzarako laguntzak prest dauzka Udalak

Erandioko Udal Nazioarteko Lankidetzarako Arloak 35.000 euro bideratuko ditu, aurtengo deialdian hegoaldeko herrialdeetan lankidetzagaitasmoak sustatzeko edota Erandioko udalerrian sentiberatze-kampainak egiteko. Era berean, Udalak funtsak gordeko ditu zuzenean eta erabaki ahala laguntza humanitarioa emateko edo gizarte-larrialdietarako

programak egiteko, aurreikusi ezin diren hondamendiak gertatzekotan, dagokion lekuan inbertitzeko. Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek maiatzaren 25era arte aurkeztu ahal izango dituzte proiektuak. Horretarako oinarriak eta bete beharreko agiriak 2015eko apirilaren 22ko Bizkaiko Agiri Ofizialean topa ditzakete. ◀

info+: erandio.net / bizkaia.net

Leioa

‘Leioa’ izan badela aldarrikatuz



Errepideetan ‘Leioa’ aurki daiteke, Google Maps-en ez bezala.

Sinadurak batzen dabilta Interneteko hainbat enpresari eskatzeko Leioa toponimoa aintzat hartu eta erabil dezaten.

Leioa Esnatu hautagaitzako ki-deek sinadura-bilketa birtuala abiatu dute Change.org gunean, Facebook, Wikipedia eta Google-i zuzenduta. Euren helburua da sareko enpresa horiek ‘Leioa’ izena bere egin dezaten eskatzea: «Leioan bizi garela esateko eskubidea dugu», Udalak ‘Leioa’ izena ofizialki hartu zuenetik 36 urte pasa direnean. Dagoneko 300 sinadura baino gehiago batu dituzte. Kanpainaren antolatzaileen arabera, «Facebooken erregistratzen zarenean Pernambuco edo Apatamonasterion bizi zarela esan dezakezu, baina ezin duzu esan Leioan bizi zare-

nik, Facebookentzat Leioa ez delako existitzen. Aukeratu ahal duzun lekurik hurbilena Elexalde da, Udaletxea kokatuta dagoen Leioako auzoa». Izan ere, Leioa leku moduan bilatzekotan, Mark Zuckerberg-en konpainiak ‘Lejo-na’ emaitza ematen du, «baina bertan bizi zarela ezin izango duzu esan».

Wikipedia eta Google

Euskarazko Wikipedian arazorik ez dago, baina espainolezkoari jarri diote arreta Leioa Esnatukoek. Bertan, Google eta Google Mapsen legez, topa daitekeen izen bakarra ‘Lejoa’ da. Hori bai, entziklopedia askeak ohartarazten du Leioa dela izen ofiziala eta euskaraz zuzena. Bertan irakur daitekeenez, Leioa 1526an sortutako Bizkaiko udalerria da, 30.685 biztanle dituen. Euskal Herriko Unibertsitateko campusetako bat bertan dago. ◀

info+: T.co/lejcx6uwo

Kromo-bilduma pertsonalizatuak

Leioako MS Comunicación Grafica y Visual enpresak kirol eta gizarte elkartentzako kromo-bilduma pertsonalizatuak sortzeari ekin dio. Estartetxe kaleko sozietatea Kromoak eta Zorroak proiektua bultzatzen dabil. Horren bidez, kromoak sortzen dituzte, beren-beregi pertsonalizatuak hainbat bezerorentzat: kirol-talde, gizarte-kolektibo, elkarte, lan elkargo, ikastola, eskola, unibertsitate, enpresa, merkatari-elkarte... Era berean, urtemugak gogoan hartzeko produktuak ere egiten dituzte. Enpresak 1976tik daroa kromoak sortzen eta, besteak beste, Mazinger Z edo Heidi bezalako bilduma klasikoak ekoitzi zituen. ◀

info+: cromosysobres.com / 652 776 710

Udal Musika Eskolan izen-ematea, zabalik

Leioako Udaleko Musika Eskolak 2015-2016 ikasturtean matrikulatzeko epea zabaldu du. Zentroak «aukera aparta eskaintzen die umeei maila amateurreko musika ikasteko, metodo oso pedagogikoen eta atseginen bidez», bertako Udalak adierazi duenez. Eskolak eskaintza zabala dauka musika-tresnen irakaskuntzan (guztira, 18 instrumentu), eta taldekako jarduera ugariren bitartez jorratzen du musika-ikasketaren garapena: eskolania, umeen talde instrumentalak, gazteen abesbatza, orkestrak... Maila amateurrean zein arautuan, Leioakoa erreferentziatzeko zentroa da musika-ikasketetan. ◀

info+: conservatorioleioa.com/eu

Alderdien agerraldiak eta proposamenak

Leioa aukeratu dute PSE-EEko hautagaiak agintzeko «egiazko informazioa eta gardentasun handia, kudeaketan zein gauzak egiteko moduetan». Carlos Totorika ahal-dungaiak eta Juan Carlos Martinez Leioako alkategaiak egindako agerraldian 18 proposamen egin dituzte, herritarren parte-hartzea bultzatu eta erakundeen gardentasuna hobetzeko. Horien artean, besteak beste, Gardentasunaren Ataria, Open Data sistema, kargu publikoen soldatak edota ondareak argitaratzea proposatu dituzte, euren iritziz orain arte «erabakiak beharrezkoa zen parte-hartzerik eta

gardentasun barik hartu» direlakoan.

EAJk, berriz, orain arteko ibilbide-tik segitzeko deia egin du: «erabakiak hartzeko partaidetza sustatzen jarraitzea eta Leioa hazarazteko behar diren akordioak bilatzea», proposatu dute. Horren adibide izan daiteke Mari Carmen Urbietta alkate eta hautagaiak EAJren «herri-partaidetza eta entzute aktiboko» Call Center-en parte hartu izana, herritarren informazio eskaerak, iradokizunak eta balorazioak jasotzeko asmoz.

Bestalde, EH Bilduk udal kontratazioez eztabaidatzeko berbaldi publikorako gonbitea berretsi du. ◀

LUBERRI
Basolanak S.L.
LOREZAINZA

SGS
Nº ES180014

SGS
Nº ES180015

ISO 9001

- Soropila Ezartzea
Lurzorua prestatzeko lanak, desinatzeko lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtzioak organitzeko lanak eta enbete lanak.

- Soropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, organitzeko, egurastea, aratzea eta desinatzeko, berriztatzea, soropila goiztiak eta belar goiztiak tratatzea.

- Inaustaketak
Hatzeko, mantentzeko, berritzeko, zehazki oparigaitzak inautzea, erabateko inautzetak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Axpe ibaiertza 28A beheko solairua B12 lokala (ERANDIO) Mug: 629 41 18 38 - Tf: 94 467 17 13 - Faxo: 94 467 42 41
lubem@euskalnet.net - www.lubem.biz

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO
IKASTOLA

0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez! Tlf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net

Sopela

Apo lasterkariari, ondoetorria

Aste akabuan jarduera bi antolatu dituzte apo lasterkaria babesteko asmoz: bariku gauean bisita gidatua egingo dute; zapatuan auzolana, putzu bat egokitzeke.



Barinatxeko goiko aldean putzuak egokitzen hasi dira.

Azken urteetan, Sopelako kostaldera heldu da oso berezia den bizilagun berri bat: apo lasterkaria. Anfibio hori Gorrondatxetik Barinatxera mugitu da azken aldian, eta bere habitat berria egokitzeke asmoz, hitzarmena sinatu dute Aranzadi Zientzia Elkar-teak eta Sopelako Udalak. Pasa den urtean, Aranzadiko teknikariak mugimendu horren arrazoiak aztertzen ibili ziren, eta orain habitat berriaren ingurua atontzen hasiko dira, apoa babes-teko asmoz.

Helburu horregaz, asteburu hone-tan jardunaldi bikoitza antolatu dute Aranzadik eta Udalak elkarlanean. Barikuan, 21:30etik aurrera bisitaldi gidatua egingo dute Barinatxe ingur-uan, apoa gertutik ezagutzeko erron-kagaz. Izan ere, anfibio hori gauez baino ez da irteten. Zapatuan, berri-z, lan egiteko ordua helduko da: goize-

ko 10:30etik aurrera apoarentzat pu-tzu bat egokituko dute, hondartzaren goiko aldean. Antolakuntzaren ardura izango dira materiala eta hamaiketa-koa. Hitzordu biak hondartzako apar-kalekuko surf-arauen kartelaren on-doan jarri dituzte, eta parte hartze-ko, ezinbestekoa da aurretik izena ematea.

Kinka larrian

Gaur egun apo lasterkaria euskal kos-taldeko leku bitan baino ez da bizi: Txingudiko badian eta Gorronda-txe eta Barinatxe hondartzaren artean. Aranzandik nabarmendu duenez, «oso egoera larrian bizi da», espezieak oso espazio gutxi duelako bizirauteko: «sa-soi batean, eremu zabalago batzuetan bizi zen, baina murriztu egin dira. Be-raz, beharrezkoa da eurentzako habi-tat egokiak sortzea». ◀

izen-ematea:

idazkaritza@aranzadi.eus / 943 466 142

Heldu da kuadrillen egunik handiena!

Heldu da eguna! Sopelako kua-drillek euren egunik handie-na ospatuko dute zapatu ho-netan, maiatzak 16, Sopelako Balea parkean. Azken urteetan, gero eta gehiago dira kuadrillen egunean parte hartzen duten gazteak. Ohi den legez, egun osoko egitaraua prestatu dute, baina, aurten, hainbat ekimen berri prestatuko dituzte, barbarako: ohiko herri-bazkaria antolatu beharrean, kuadrillek gazteen parte-hartzea bul-tzatu gura izan dute, pasta-lehiaketa baten bidez. Kuadrilla bakoitzak pas-ta-plater bat prestatu beharko du «as-katasun osoz», gura dituen osagaiak

erabilita. 14:00etan epaileei pasta-pla-tera entregatu beharko diete, eta, ho-rren ostean, denek elkarregaz herri-bazkaria egingo dute Balea parkean.

Bapo bazkaldu eta gero, 17:00etan «Banderaren joko» etorriko da: kua-drillek bandera bana izango dute, eta bandera gehien lapurtzen dituen kuadrillak irabaziko du lehiaketa. Jo-koa udaletxeko plazan egingo dute. Egunari txapela jartzeko, arrastiko 07:00etatik aurrera kuadrillek herri-ko tabernetatik koktel-poteoa egingo dute, taberne edari bereziak presta-tuko dituztelako egun horretarako. ◀

info ++: sopekoor@gmail.com



Paula Aiarza eta Leixuri Urrutia sopeloztar gazteak ba-lletaren munduan erreferente bihurtu dira. Apirilean lehenbiziko aldiz Ma-drilen egon ziren, Ion Beitiaren konpainiagaz *Paquita* lan klasikoan parte hartzen. Euren erronka orain, iaz legez, beka lortzea izango da.

irabazi

Maiatzaren 24an,
zure boto-txartelak



equo

-ren logoa
darama



elkartzeko garaia
tiempo de unirnos

Plentzia

Ikastaro ugari udarako

Ekaina eta uztaierako

lehen sorospenak, trikota, skate eta yoga kurtsoak antolatu ditu Udalak.

Plentziako Udalak herritar guztiei begirako hainbat ikastaro antolatu ditu udarako. Kurtsoak honakoak izango dira: lehen sorospenak, trikota, skatea, eta yoga hondartzan. Izen-ematea Goñi Portalean egingo da, eta horretarako epea hilaren 18ra arte luzatu dute.

DYako langileek emango dute lehen sorospenen ikastaroa; kurtso horregaz, proba teorikoak eta praktikak gaudituz gero, Sorosle Titulua lortu ahal izango da. Ikastaroa 25 ordukoa izango da, ekainaren 22tik 30era eta uztaieraren 1etik 3ra, eta ordutegia honakoa: 16:30etik 19:00etara, Goñi Portalean. Puntua egitea gustu-



Maiatzaren 18ra arte eman ahal izango da izena, Goñi Portalean.

ko dutenek, edota horretan hasi gura dutenek, trikota ikastaroa izango dute aukeran; gazteek uztaieraren 7an, 9an, 14an eta 16an, eta nagusiek uztaieraren 8an, 10ean, 15ean eta 17an.

Bestealde, uztaieraren 6tik 22ra arteko astelehen eta eguazten denetan,

6 urtetik gorako neska-mutilek skateaz gozatu ahal izango dute; 16 urtetik gorakoek, berriz, hondartzan yoga egiten ikasteko aukera izango dute ekaineko eta uztaileko martitzenetan eta eguenetan, 19:30etik 21:00etara. ◀

info +: www.plentzia.org

Desfibriladoreak eta ke detektatzaileak erosi ditu Udalak

Herritarren bizi-kalitatea eta segurtasuna hobetzeko helburuagaz, Plentziako Udalak hiru desfibriladore erosi ditu, eta ke-detektatzaileak banatuko ditu herriko nagusien artean.

Hobekuntza jarraitua sustatzeko politikagaz segituz, eta herritarrei eskainitako zerbitzuak hobetzeko asmoz, erositako hiru desfibriladoreak hurrengo gunetan ipiniko dituzte: Errotabarri futbol zelaian, Ondarreta ibilbideko Arkoterren egoitzan eta udaltzainen autoan.

Halaber, bereziki nagusien segurtasuna zaintzeko eta, orokorrean, herritar guztien segurtasuna jagoteko, Udalak bakarrik bizi diren nagusiei dohainik eskainiko dizkiete su atzemateko sistemak. Horietako bat jasotzeko, interesdunek laster jasoko dute eskaera egiteko jarraitu beharreko prozesua azaltzen duen gutuna. ◀

info +: www.plentzia.org

Berango

Udal Musika Eskolan izena emateko epea zabalik dago

Berangoko Udalak jakinarazi duenez, Udal Musika Eskolan ikasle berriak matrikulatzeko epea zabalduta dute. Hala, musikaren munduan sakondu edota hasi gura duten neska-mutilek uztaieraren 30era arte izango dute 2015-2016 ikasturterako izena emateko aukera; eskabideak udal bulegoetan aurkeztu beharko dituzte. Udalak gogoratu duenez, irakaskuntza eskaintza hori ez-arautua da. Ikastaroetako prezioak honakoak dira: 30 euro hileko, musika-hezkuntzan; 26 euro hileko, pianoa jotzen ikasteko; eta 14 euro hileko, abesbatzan. Izen-e-



mateek eskainitako leku-kopurua gaudituko balute, lekuak zozketa bidez emango liratekeela jakinarazi du Berangoko Udalak. ◀

info +: www.berango.net

Urduliz

Ume eta gazteak udalekuetara joateko inskripzioa, amaitzear

Urdulizko 115 neska-mutilek izango dute aukera udalekuetara joateko, ekainaren 22tik uztaieraren 17ra. Horretarako, beharrezkoa da gurasoek izen-ematea betetzea; barikuan, beranduen. 3 eta 5 urte arteko umeentzat, 40 leku izango dira Urdulizko kultur etxean. Goizeko 10:00etatik 14:00etara hainbat jardura egingo dute bertan. Halere, 10 familiak eskatuz gero, Udalak haurtzaindegi-zerbitzua jarriko du goizeko 08:30etik aurrera. Era berean, 6 eta 12 urte arteko 75 gaztetxok Plentziako eta Gorlizko hondartzetan gozatzeko aukera izango dute. Autobusa

osasun-etxean edo udaletxean hartu beharko dute 09:30ean, eta 14:30erako bueltan joango dira. Eskaria eskaintza baino handiagoa bada, izena eman dutenen artean zozketa egingo lukete, hilaren 19an, 18:30ean, kultur etxean.

Gazteen ikasgelak

Txikienak udalekuen zain dauden bitartean, gazteek azterketei eutsi behar diete. Horientzat, Udalak ikasgelako ordutegi berezia eskainiko du, ekainaren 28ra arte: zapatuetan, 16:00etatik 21:00etara; eta domeketan, 09:00etatik 14:00etara. ◀



Belena usaina

DAVID CRESTELO DOMINGUEZ
Plentziarra

Gora herri koloretsuak!

Tsunami sortuta zegoen eta Marotok olatua aprobetxatu du. Azkuna jaunaren estiloa jarraituz, beste batzuk esatera ausartzen ez direna bota du berak. Honek ez ninduen harritu beharko, hausnarketa intelektual handirik egin gabe, PPkoak direnez Maroto eta bere lagunak mezu xenofobo eta arrazistak zabaltzearen lagunak direla pentsatu ahalko nuke. Sinpleegia, ezta?

Benetan kezkatu nauena politikari hauen gorrotoa eta kalean, eta batez ere sare sozialetan, zabaltzen diren interes alderdikoiak eta mezu arrazista eta xenofoboak izan dira, batzuetan lagun eta ezagun birtualek babestuta. Ez-adiskidetzearen ariketa egin nuen, baina bizikidetzari egindako kaltea ez da hain erraz konpontzen. Hau ere gure esku dago. ◀

Ekainaren 24ko 4/1993 Legeak, Euskadiko Kooperatibenak, 33. artikuluan eta Ander Deuna Ikastola Koop. Elkartearen Estatutu Sozialak 25. artikuluan ezartzen dutenaren arabera, Ander Deuna Ikastola Koop. Elkarteak Artezkaritza Kontseiluak, 2015eko maiatzaren 5ean egindako bileran, **Ohiko Batzar Nagusirako deialdia** egitea erabaki du.

Data: 2015eko maiatzaren 28a.
Lekua: Ander Deuna Ikastolako Areto Nagusia.

Ordua: 18:30ean lehen deialdian eta, horrela balegokio, 19:00etan bigarren deialdian.

LAN ZERREDA


1. Batzar Nagusiaren hasiera. 2. Batzar Nagusiko akta onartzeko bi ordezkarri izendatzea.
3. 2014ko Jarduera Txostenaren azterketa eta onarpena, horrela badagokio.
4. 2014ko kontuen azterketa eta onarpena, horrela badagokio, eta soberakinen zertarakoa.
5. 2015-16 ikasturteko kudeaketa planari buruzko txostena.
2015-16 ikasturteko IKT azpiegitura proposamena eta onarpena, horrela badagokio.
6. 2015eko aurrekontu ekonomikoa eta 2015-16 ikasturteko kuotak onartzea, horrela badagokio.
7. 2015eko ekitaldiko kontu-ikuskeriak izendatzea.
8. Zaintza Batzordeko kideen berritze partziala.
9. Bertaratutakoek euren iritziak agertzeko txanda.



Barrika

«Lehiaketen inpertsonaltasuna apurtzen dute argazki-rallyek»

Barrikan, 4 gai eta 3 ordu. Hiru baldintza horiek bete beharko dituzte ekainaren 14an Barrikako 4x4x3 Argazkilaritza Rally Digitalera hurbiltzen diren argazkizaleek; aldeztatik izena eman badute.



Jose Mari Albisu, lehiaketaren antolatzailea.

IKER RINCON MORENO ►

Barrikak ezohiko argazkilaritza lehiaketa hartuko du ekainaren 14an. Izena ematen duten lehenengo 50 argazkizaleek bakarrik parte hartuko dute; ekainaren 3ra epea zabalik dago.

Ekainaren 14an 4x4x3 Argazkilaritza Rally Digitala egingo duzue Barrikan. Nondik dator ideia hori?

Rallyak gehiago gustatzen zaizkit, argazkiak entregatzen diren lehiaketa ohikoak baino. Kanadako Vancouver hirian 12x12 izeneko Rallya egin zuten: 12 argazki, 12 orduan. Eta hortik buru-

ratu zitzaidan Barrikako lehiaketa egitea. Gure rallya horren bertsio txikia da, mundu digitalera egokitutakoa. Izan ere, Kanadako lehiaketa zuri-beltezko filmakaz egin zuten.

Gaur egun edonork eros dezake kamera reflex bat. Argazkilaritzarako zaletasuna gero eta handiagoa da?

Argazkiak ateratzeko zaletasuna goreneari dago, noski; hainbat faktorek eragina izan dute: formatu digitalekin erraz truka daitezke argazkiak, eta berehala ikus daitezke irudiak. Hala ere, ez da gauza bera argazkiak ateratzeko zaletasuna eta argazkilaritzarako zaletasuna. Uste dut azken horren zaleta-

sunak gora egin duela, bai, baina uste dut horren «benetako» zaletasuna ez dela proportzionalki hazi.

Zeintzuk dira rallyen berezitasunak?

Rallyan egun eta ordu jakin batean biltzen dira argazkilariak, eta gai jakin batzuk emanda, argazkiak ateratzen dituzte denbora tarte eta eremu mugatu batean. Argazkizale ugari biltzen dituzte lehiaketa mota horiek. Bere «morboa» dute, edozein lekutan «aurkariakaz» topo egiten duzulako eta eurakaz hartu-emanak izateko aukerak eskaintzen dituelako. Laburrean esanda, beste lehiaketetako inpertsonaltasuna apurtzen dute rallyek.

Zelakoa izango da Barrikako Rallya?

Ohi bezala, gure Rallyan ere eremua eta denbora mugatuko ditugu: Barrika herrigunea eta hiru ordu. Hala ere, gaiak ez ditugu hasieratik jakinaraziko. Lehenengo 10:00etan emango dugu, eta hurrengo, handik 45 minutura; hirugarrena, bigarrenetik 45 minutura, eta, azkena, hirugarrenetik 45 minutura. Guztira, 4 gai izango dira, 4 argazki aurkeztu beharko dituzte, eta horretarako, 3 ordu emango dizkiegu. Hori dela eta, Barrika 4x4x3 izena. Nahi beste argazki atera daitezke, baina 3 orduak bukatzean, «in situ» aukeratu beharko dituzte aurkezteko 4 argazkiak, gai bakoitzeko bana. Beste guztiak borratu beharko dituzte. Hala, garrantzitsua da ematen diren argazkiak gaien ordenan aurkeztea.

Zer eroan beharko dute?

Izena ematen duten lehenengo 50 pertsonak bakarrik onartuko ditugu, eta euren ekipo propioa eraman beharko dute; sakeleko telefonoak ez dira onartuko. Antolatzaileek memoria-txartelak banatuko dituzte, eta amaieran bueltatu beharko dituzte lehiaketa-kideek.

Gomendiorik, parte-hartzaileentzat?

Oinetako erosoak ekartzea, asko ibili beharko dute-eta. Antolatzaileek udalerraren planoak banatuko dituzte, eta jakin dezazuen: Barrika oso handia da. Bestalde, ekipoa egoera onean izatea eta Barrika ezagutzeko gogoia izatea. A! Eta ordurako heltzea. ◀

Taberna Berri
Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

GOIZEAN
"Gozoki eta prentsa, gubxi denik ez prentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Liburariak
Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com
irati
OPARIAK MODA GAZTEA

OSTAIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria
• Odontologia orokorra
• Ortodontia
• Periodontia
• PADI
Bidebarri 27, beheko eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA
Lacofris
MARRA GUZTIAK
24 ORDUTAN ERANTZUNA
3 HILABETERO GARANTIA
IRTEERA DOAN
Tf. 94 430 52 00 - KASUNE 18 - ALGORTA
www.lacofris.es - sat@lacofris.es

txakoli motaTx
txakolina
Irujo Urbe enpledea 34 (Alkandara Parke) Goleen Etxidea
Tf. 94 467 00 07 - www.txakolimotagane.com

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra
Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

Uribe Kosta

Autobus-zerbitzuaren ordutegia zabaldu dute

Plentzia eta Sopela

lotzeko ordezkotzeko zerbitzuaren azken autobusak 22:20an irtengo dira Plentziatik.

Metro Bilbaok eta Bizkaiko Garraio Partzuergoak jakinarazi dutenez, Urdulizko trenbide-pasagunea lurperatzeko lanen ondorioz, Sopela eta Plentzia lotzeko martxan jarritako ordezkotzeko autobus-zerbitzua «hobetu dute». Apirilaren 2an itxi zituzten bi udalerrri horien arteko metro-geltokiak, eta ordezkotzeko autobusak hilabetez funtzionatzen egon ostean, hilaren 9an aipatutako zerbitzuaren ordutegiak berregokitu zituzten. Kontuak hala, daborduko eguneko azken autobusak 22:20an irteten hasi dira Plentziatik.

Doikuntza horregaz, Gorlizko ospitaleko langileen garraiorako beharrianak konpondu gura izan dituzte.



Autobus-geltokietan markesinak ipintzea aurreikusi dute.

Horrez gainera, markesinak jarriko dituzte Plentziako eta Sopelako autobus-geltokietan.

Plentziako geltokiaren inguruko obrek polemika sortu dute, eta horren aurrean, Udalak egoera argitu behar izan du; hainbat txosten plazaratu ditu geltokiaren kudeaketaren berri emateko, eta horietan ikus daitekeen, Udalak beharrezkoak ziren baimenak eskatu zituen. Tokiko EH Bil-

duk, bere aldetik, BGPren kudeaketa «eskasa» salatu eta garraio-agintaritza bakar baten beharra azaldu du.

Katenaria lapurtzen saiatu dira

Ertzaintzak auto bat atzeman zuen, Urdulizko trenbidearen tarteko balastoan aparkatuta zegoen; ibilgailuaren barruan, Metro Bilbaoko katenariatik ebatsitako kobrea zegoen, polizia-iturriek jakinarazi dutenez. ◀

Algortako, Areetako eta Leioako metro-geltokietan wifia, doan

Algortako, Areetako eta Leioako metro-geltokiak doako wifi-zerbitzua dute daborduko. Hala, Metro Bilbaoko bezeroek Interneterako sarbidea izango dute dohainik 15 minutuz. Metro Bilbao 2014ko abenduan hasi zen wifi-lotura instalatzen geltokietan, eta, daborduko, hamar geltokik dute Interneterako sarbidea: Bilboko lau geltokik (Alde Zaharra, Moyua, Sarriko eta San Mames), Ezkerraldeko beste hiruk (Gurutzeta, Sestao eta Santurtzi) eta aipatutako Algorta, Areta eta Leioakoek. Internetera konektatzea dohainik da, eguneko 15 minutuz geltoki bakoitzean; zerbitzua luza daiteke, asteko edo hileko ordainketa baten bidez. Wifinova enpresak emandako datuen arabera, wifira konektatzeko zerbitzuak arrakasta handia dauka metroko bidaiarien artean, berbarako: apirilean 256.165 bisita izan dituzte zerbitzua eskaini duten zazpi geltokiak. Zerbitzura gehitutako azken hiru geltoki horiek batuta, Wifinova enpresak kalkulatu duenez, hilean 350.000 konexio izango dira. Wifinovak, zerbitzua instalatu duen enpresak, bere gain hartu ditu ezarpen teknologikotik eratorritako kostu guztiak. ◀

Unibertsitatea

Azterketetarako ikasteko gelak Bilbon zabaldu ditu EHUK

Daborduko, Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) ikasteko gelak zabaldu ditu bere ikasleentzat, bigarren lauhilekoko azterketak presta ditzaten. Unibertsitateak zabaldu duenez, Leioako campusean ez da zerbitzu berezirik izango aste akabuetan, eta ikasleek Bilbora jo beharko dute, halaberharrez. Ekainaren 28ra arte, ikasi ahal izango da Bilboko Luis Briñas kalean dagoen Ingeniaritzako Goi Eskola Teknikoan. Data horietan ere azterketak prestatu ahal izango dira Bilboko Ibarrekolanda auzoan, Sarriko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko eraikin nagusiko beheko solairuan. Sarrikoko zentro horretan, uztailearen 4an eta 5ean ere ikastera joan ahal izango da. Ordutegia 09:30etatik 22:00etara izango da Bilboko Ingeniaritza GETeko ikasgelan, eta 09:30etik gaueko 00:00etara, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean. Ikasteko geletan sartzeko, EHUKo ikasle-txartela beharrezkoa izango da. ◀

Kontsumo elektrikoa telefonoan neur daiteke, daborduko

EHUKo Bilboko Ingeniaritzako Goi Eskola Teknikoak jendaurrean aurkeztu du *neurGai*, telefonoan etxeko kontsumo elektrikoa neurtzeko tresna. *neurGai* aplikazio horrek telefonoa kontsumo elektrikoen kontagailu bihurtzen du. Tresnak helburu nagusi bi ditu: erabiltzaileak bere kontsumo elektrikoa ezagutzea, neurtzea eta kontrolatzeko gai izatea; eta kontsumo elektrikoen inguruko sentsibilizazioa bultzatzea. Interesdunak *neurGai* instalatu ahal izango du telefono mugikorrean, hiru pausoren jarraituz: posta elektronikoko bat bidaltzea esanez interesa duela; Bilboko San Mames geltokiaren ondoko IGETeko laborategian gelditzea hamar minutuz, adituek telefonoa kalibratu eta aplikazioa instalatzeko (saretik ere jaits daiteke); azkenik, zunda anperimetrikoko bat utziko diote hainbat astez, etxeko kontsumo elektrikoa neurtzeko. ◀

Info+: www.ehu.eus/ehusfera/neurgai
neurgai@ehu.eus

Gorliz

Aterpetxearen ondoko txosna kudeatzeko aukera, zabalik

Udako hilabeteetan, aterpetxearen ondoan dagoen taberna-txosnaren kudeaketa esleitzeko espedientea zabaldu du Gorlizko Udalak. Taberna hori kudeatzeko interesa duenak udaletxeko bulegoetara hurbil daiteke aurkezpene eta eskabideak egiteko, maiatzaren 15a baino lehenago. ◀



Lemoiz

Udalak igeltsero bat behar du, oposizio-lehiaketa ireki baitu

Lemoizko Udalak igeltsero bat behar duela jakinarazi du. Hori dela eta, lanpostu hori betetzeko oposizio-lehiaketa zabaldu berri du. Prozesu horretan parte hartu gura dutenek hilaren 26ra arte izango dute aukera eskariak betetzeko. Horretarako, udaletxean eta udal webgunean lor daitezkeen eskabiderako erabili beha-

rreko eredu ofizial eta normalizatuak bete beharko dituzte. Igeltsero lanpostu horren lehiaketan parte hartzeko, derrigorrezkoa izango da 16 urte bete-izatea, eskola-ziurtagiria edo balio-kidea izatea, B gidabaimena izatea eta 1. Hizkuntza Eskakizuna izatea. ◀

Info+: www.lemoiz.org
Harremanetarako: 946 879 009



Daborduko talde ugari hartu ditu Urdulizko eliza inguruko agertokiak. © AIZU

Agertoki bila?

Andra Mari festetan jotzeko gonbita luzatu die Urdulizko jai-batzordeak herriko musika taldeei eta bakarlariei. Ekainaren 1era arte izena eman daiteke.

Andra Mari jaietan jotzeko aukera eman gura die Urdulizko jai-batzordeak herriko musika taldeei eta bakarlariei, «bertako musika-kultura bultzatzeko asmoz». Izena emateko epea ekainaren 1era arte egongo da zabalik: jai-batzordearen helbide elektronikora (urdulizkojb@gmail.com) mezua bidali edo kultur etxera jo beharko dute oholtzara igo gura duten mu-

sikariek. Taldekideen NAN txartelaz gainera, Urdulizen errolatutakoen izen-abizenak beharko dituzte antolatzaileek. Izan ere, deialdiaren oinarrietan zehaztu dutenez, aurkeztutako taldeetan zenbat eta urduliztar gehiago egon, orduan era aukera gehiago edukiko dute banda horiek Andra Mari jaietan jotzeko. Homofoboak, arrazistak edo sexistak izan daitezkeen kantak jotzen dituztenak deialditik kanpo

daudela argi utzi dute Urdulizko jai-batzordekoek. Zein taldek joko duten eta zeinek ez, uztailearen lehenengo astean jakinaraziko dute.

Behin aukeraketa egin eta gero, jai-batzordearen betebeharrak izango dira kontzertuak ondo atera daitezen bermatzea, taldeei laguntzeko bere esku dagoen dena eskaintzea eta emeraldien berri komunikabideetan zabaltzea.

Aste Nagusia 2015

Udan jotzeko oholtza-eskaintzak berbagai, Bilboko Udalak maiatzaren 31ra arte zabalik edukiko du Aste Na-

gusiko 30. metal-pop-rock erakustaldian izena emateko epea. Deialdia hori ere lekuko taldeentzat da, hau da: aurreko edizioetan legez, parte hartu ahal izateko, Bizkaian bizi izatea edo taldekide bat gutxienez lurralde historiko horretan errolatuta egotea beharrezkoa izango da. Metal eta pop-rock estilo guztiak onartuko dira, jazzza izan ezik. Inskripzioa sarean egin beharko da, Bilboko Udalaren web-orrian.

Antolatzaileek azpimarratu dute, taldekideen artean emakumeak izatea eta euskaraz kantatzea, «berezi ki kontuan» hartuko dute, taldeak au-

Hil akabura arte dago
Aste Nagusiko musika
taldeen erakustaldian
izena emateko

keratzeko orduan. Gutxienez lau kanta original bidali beharko dituzte musika-bandek, baita argazkia, biografia eta taldearen datuak ere. Erabilitako hizkuntzak, estiloa, eta taldea osatzen dutenen kideen izenak aipatu beharko dituzte. Aukeratutako taldeek ezin izango dituzte jo bertsio edo adaptazio bi baino gehiago kontzertuetan. Halaber, ezin izango dute Bilbon jo, ekitaldiaren data baino 15 egun lehenago. 45 eta 50 minutu arteko iraupena izango luke kontzertuak.

Deialdiaren bidez, urteotan 294 taldek euren musika ezagutarazteko aukera eduki dute Aste Nagusian. ◀

Umore Azokan aktore, 120 euro ordaindu ostean

Ehun profesional baino gehiago (programatzaileak, kultur kudeatzaileak, banatzaileak), 170 emanaldi inguru eta milaka zale batuko ditu aurtien ere Umore Azokak, maiatzaren 21etik 24ra bitartean. Hala ere, kaleko artisten jaialdia hasi aurretik ere, bihurtzen da topaleku Leioa, besteak beste: hilaren 19an eta 20an tailerra eskainiko du Cacahuete taldeak. Oro har, kale-arte eta arte eszenikoe-tako profesional eta zaleei zuzenduta dago jarduera. Pascal Larderet zuzendari artistikoak eskainiko duen ikastaroak atal bi edukiko ditu: kale-antzerkiaren eta *L'enterrement de Maman*

XXL ikuskizuneko gako nagusiak azalduko ditu lehenik *workshop*-ean. Horretarako, antzezlanean azaltzen diren gai eta pertsonaien sortzea aztertuko dute, eta ikastaroan parte hartuko duten herritarraz landuko dute obra. Ondoren, *workshop*-ean ikasi eta prestatutakoa erakutsiko dute Umore Azokan. Alegia, ikastaroan parte hartuko duten ikasleak *L'enterrement de Maman* XXL ikuskizuneko aktore bihurtuko dira, Lardereten ekimenez.

Gehienez 15 pertsonakoa izango da taldea, eta tailerraren prezioa 120 eurokoa da; Kultur Leioako lagunek erdia ordainduko dute. ◀

Leioako pop-rock sariak badauzkate finalistak

Aterpe Leioa Gazteguneak eza-gutxera eman ditu bertako pop-rock lehiaketaren finalistak izenak. Metal modalitatean, The Descent (Bilbo) eta Bullets of Misery (Gernika) izan dira finalerako aukeratutako bandak. Pop-rock kategorian, ostera, Mr.Perdigans (Ciudad Real) eta Atikus Finch (Iruñea) taldeak igaro dira finalera. Halaber, Euskarazko abestirik onenari sariaren 600 euroak Hartzak Blues Bandek (Balmaseda) irabazi ditu, «Amorrua dastatzen» kantagaz. Leioako Udalaren sariari dagokionez (beste 600 euro), Guda Dantza taldeak jaso du, lehiaketara

aurkeztutako talde leioaztarrik onena izendatuta. Finalistez gainera, sari bereziak jaso dituzten taldeek ere aukera edukiko dute San Juan jaietan jotzeko. Sariak berbagai, metal saileko irabazleak 1.200 euro jasoko ditu, pop-rock kategoriako bandarik onenaren antzera. Lehiaketako talderik onenak, ostera, beste 400 euro jasoko ditu.

Aterpe Leioak argitu duenez, 57 talde aurkeztu dira Leioako Pop-rock Lehiaketaren XV. ekitaldira: 41 pop-rock talde eta 16 metal talde, hurrenez hurren. Jatorriari dagokionez, hiru leioaztarrak ziren, 37 Euskal Herrikoak eta 17 beste jatorri batzuetakoak. ◀



URIBE KOSTA


Itsasadarrean barrena, industria ondareari so

Udaberriko azken berbatxangoa antolatu dute maiatzaren 17rako, domeka, Erandioko Berbots, Sopolako Aitxu eta Getxoko Egizu elkarteek, ohiden legez, euskara eta euskal kulturara sustatzeko asmoz. Gainera, oraingo honetan ez da edozelakoa izango, itsasontziz egingo dute-eta. Izan ere, itsasadarrean barrena, gure industria-ondarea ezagutzeko aukera edu-

kiko dute eskualdeko berbalagunek *Euskal Herria* itsasontzia garraio-modu. Hizlaria Ainara Martinez izango da, Industri Ondare eta Herri-Laneko Euskal Elkarteko (IOHLEE) kidea. Lan handia dauka eginda Martinezek industria-ondarearen eta gure industria-historiaren inguruan. Berbalagunak 10:00etan abiatuko dira Getxoko kirol portutik, eta Bil-

boko udaletxea edukiko dute helmutga. Bidean, Abraz, Bizkaiko Zubiaz, labe garaiez eta industriaren gaineko hainbat gaiez berba egingo die Martinezek. Gutxi gorabehera 12:30ean egongo dira bueltan, kirol portuan. Bidaiaaren salneurria 5 eurokoa da helduentzat, eta umeentzat, doan. ◀

izena emateko: berbots@gmail.com / aitxuzubaba@gmail.com / 603 894 364



Maiatzak 14, eguena

- 11:00** Txupina botatzea, Geroakoen eskutik, Malakaten.
- 18:00** *Slackline*-a (Orekan Slackline Bizi taldearen ekimenez), buruhandiak eta txokolate jana (Iñax Argiaren ekimenez), Malakaten.
- 21:00** MLL, Jarrera eta Ou Mama taldeen kontzertua, parkingean.

Maiatzak 15, barikua

- 17:00** Idi-probak, kooperatibaren ekimenez, probalekuan.
- 17:00** Graffiti-erakusketa, Bentan.
- 17:30 - 19:30** Umeentzako jolasak, Malakaten.
- 19:00** Mus txapelketa, Bentan.
- 20:00** Pala txapelketaren finala, kiroldegian. Bizkaiko Emakumeen Gomazko Paleta lehenengo Kiriela.
- 21:00** Suzko zezena, Malakaten.
- 23:00** Printzi analak, parkingean.

Maiatzak 16, zapatua

- 11:00** Puzgariak, Malakaten.
- 12:00** Fanfarrea, Malakaterik abiatuta.
- 14:30** Herri-bazkari animatua, parkingean.
- 19:00** Poteo girotua, parkingetik Malakatera.
- 20:00** Pozpo eta Lintxo pallazoak, Malakaten.
- 21:00** Iñax Argiaren dantzaldia, kiroldegian.
- 23:00** Oxabiren erromeria, parkingean.

Maiatzak 17, domeka

- 11:00** Herri-azoka, parkingean.
- 12:00** Pintxo-potea, txosnetan.
- 13:00** Tiragoma txapelketa, parkingean.
- 17:00** Club Patinaje Show Getxoren erakustaldia, kiroldegian.
- 18:30** Dantza-plaza, Dangiliske taldeagaz, parkingean.

2015/05/14 - ordua: 20:00

Still River rock-taldea

Glass kafetegia | Getxo

Getxo Zuzen ean programaren barruan. Sarrera doan.

2015/05/14 - ordua: 20:00

Maratones solidarios Javi Conde berbaldia

Astrabuduko osasun-etxe zaharra | Erandio Basauriko Javi Conde atleta paralinpikoak eta Jon Salvador eran dioztarrak berba egingo dute, Atri

2015/05/16 - ordua: 19:00

La tetera antzez-lana helduentzat

Berango Antzokia | Berango

Antzerki Amateurraren IV. Jardunaldien barruan, Derioko Suton doan taldearen ekimenez. Gaztelaniaz. Sarrera: 3 euro.

2015/05/16 - ordua: 19:30

El señor de Martiartu antzez-lana Azoka zaharra | Erandio

Euskara parkeetara zabalduko dute

Maiatzaren 15ean, Parkean Olgetan eki-
mena martxan ipiniko du Sendi egitas-
moak. 17:30ean Malakaten jarri dute hi-
tzordua. Hil honetan, barikuro, parke
batean batuko dira gurasoak eta umeak,
jolasen bidez euskara zabaltzeko. ◀

Betiko ikastolaren sortzaileen omenez

Hilaren 15ean, barikua, Betiko ikastola
sortu zuten 11 familiei omenaldia egin-
go diete. Hitzordua 18:00etan ipini dute
Kultur Leioan. Betiko ikastolak 50 urte
bete ditu aurten, eta, hori ospatzeko,
daborduko ekitaldi ugari egin ditu. ◀

Xurruten urtemugan, oholtza beteta

Aste akabu honetan Julk Jogan eta Bus-
ker Juice (hilak 15, 21:00), Balerdi Baler-
di (hilak 16, 21:30) eta Tamar Aphek (hi-
lak 17, 19:00) taldeek joko dute Xurrut
pizzerian. Zapatu eta domekako ema-
naldietarako sarrerak 5 euroan daude. ◀



Garai bateko ibilgailuak, Plentzian

Plentzia Classic elkartearen ekimenenez, Ibilgailu Klasikoan
Topaketaren 8. edizioa egingo dute domekan. Besteak bes-
te, 12:00etatik aurrera ibilbide bat egingo dute autoek ingu-
ruko herrietatik; 13:00etan, ostera, ikusgai egongo dira As-
tillero plazan. Sari-banaketa eta luncha ere egongo dira. ◀

Noiz: Maiatzak 17, domeka
Ordua: 09:30etik aurrera
Non: Astillero plaza
Sarrera: Doan

1 Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektroniko honetara: hiruka@hiruka.eus

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.

Kirol taldearen ekimenenez. Gaztelaniaz. Doan.

2015/05/15 - ordua: 19:30

El señor de Martiartu antzezlan

Azoka zaharra | Erandio
Difusa elkartearen eta Astrabuduko Nagusien
Taldearen ekimenez. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro
(Josu Murueta kultur etxean eta udaletxean,
eskuragari).

2015/05/15 - ordua: 21:00

Jimmy's Hall filma, ingelesez

Andres Isasi musika-eskola | Getxo
Azpiftuluduna, jatorrizko bertisioan. Foruma ere
egongo da. Sarrera: 2,90 euro.

2015/05/15 - ordua: 21:30

Apo lasterkaria ikusteko bisita gidatua

Barinatxe hondartza | Sopela
Aranza di Zientzia Elkarteak eta Sopelako Udalak
antolatuta. Aurretik izena eman beharra dago:
943 466 142 / idezkaritza@aranza.di.eus

2015/05/16 - ordua: 10:00etatik aurrera

Koadrilen Eguna

Udaletxe plaza | Sopela
Pasta lehiaketa, bazkaria, ban deren jokoa eta
koktel-poteoa, egun osoan.

2015/05/16 - ordua: 10:00

Apo lasterkariarentzako putzuak egokitze

Barinatxe hondartza | Sopela
Erremintak antolatzaileek jarriko dituzte.
Hamaketakoa egongo da parte-hartzaileentzat.
Aurretik izena eman behar da: 943 466 142 /
idezkaritza@aranza.di.eus

2015/05/16 - ordua: 12:00 - 14:00

Esperimentu harrigarriak eta ponpa tailerra

Ibarreta plaza | Gorliz
Euskaraz Olgetan egitasmoaren barruan. Euria
bada, pilotalekuan. Parte-hartzea libre.

2015/05/16 - ordua: 18:00

El septimo enanito umeentzako filma

Kultur etxea | Urduliz
Gaztelaniaz. Sarrera: 3,5 euro.

2015/05/16 - ordua: 18:00

El maestro del agua filma

Kultur etxea | Urduliz
16 urteik gorakoentzako pelikula. Gaztelaniaz.
Sarrera: 4,5 euro.

Difusa elkartearen eta Astrabuduko Nagusien
Taldearen ekimenez. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro
(Josu Murueta kultur etxean eta udaletxean,
eskuragari).

2015/05/16 - ordua: 21:00

Angel Stanich Band eta Dj Desert Party, kontzertuan

Utopian aretoa | Getxo
Sarrera: 15 euro / 12 euro, aldeaz aurretik
(ticketmaster.es).

2015/05/17 - ordua: 08:00

Argazki-irteera, Barakaldoko parke botanikora

Astrabuduko taxi-gettokia | Erandio
Izulara 14:00etan izango da. Informazio gehiago:
696 758 354

2015/05/17 - ordua: 13:00

Erandioko Udal Musika Bandaren kontzertua

Gaztela eta Leon Zentroa | Erandio
Sarrera doan.

2015/05/17 - ordua: 17:00

Fucsia minibruja filma

umeentzat

Andres Isasi musika-eskola | Getxo
Gaztelaniaz. Sarrera: 2,10 euro.

2015/05/17 - ordua: 18:00

Phineas y Ferb filma

Berango Antzokia | Berango
Animaziozko zinea, umeentzat. Gaztelaniaz.
Sarrera doan.

2015/05/17 - ordua: 19:00

Comicas atribuladas, buscan obra antzezlan

Josu Murueta kultur etxea | Erandio
Luna Llena taldearen ekimenez. Gaztelaniaz.
Sarrera: 2 euro (kultur etxean eta udaletxean,
eskuragari).

2015/05/18 - ordua: 17:00 - 19:00

Euskal jolas eta abestiak

Urizarreko eskola | Lemoiz

Euskaraz Olgetan egitasmoaren barruan. Euria
bada, Urizarreko pilotalekuan egingo dute.
Parte-hartzea libre.

2015/05/19 - ordua: 20:00

Amanece en Edimburgo pelikula

Kultur Leioa | Leioa
Perseo zineforumaren komedia-zikloaren
barruan. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,5 euro.



Aluzsinatzen

URIZ MORENO AJURIA
Puta dinostazu,
txarra balitz legez

Zakildun emakumeak; aludun gizonak

Lau urteko Joseba Ane dela esaten hasi da. Halakorik erabakitzeko txikiegia dela pentsa dezakegu; aldiz, Joseba izatearekin ados agertu balitz, ez genukeen pentsatuko txikiegia denik halakorik erabakitzeko, ezta? Arazoa, identitatea esleitutako sexu eta generoarekin bat ez datorrenean sortzen zaigu.

Generoa eraikuntza soziala dela nahiko onartua dago; sexua balore biologikoetan oinarritzen dela uste dugu eta sexu-identitatea berezkoa dugula. Hala, di-kotomikoki sailkatzen gaituzte: zakila baduzu, mutila; alua baduzu, neska. Ezaugarri sexualak aztertze-ko 5 irizpide nagusi erabili ohi dira: kromosomak (XY eta XX aukerez gain konbinazio posible gehiago ematen direla badakigu: XXY, XXX, XYY, XO...); gonadak eta genitalak (beti ez datoz bat, baliteke testikulu eta aluarekin jaiotzea edota testikulu zein obarioekin, pertsona intersexualak legez); 2.mailako ezaugarri sexualak (badira emakume oso iletsuak eta badira ahots zolia duten gizonak); eta hormonak (gizonezkoek androgeno gehiago izan ohi dute eta emakumeek estrogeno kopuru handiagoa, baina sexuen arteko barietatea baino handiagoak dira sexu berekoen arteko hormona-maila ezberdinak). Genitalei erreparatuz esleitu ohi da sexua baina identitatea hankartean dugararekin bat egitea baino gehiago da; pertsonak konplikatuak gara, bai gure gorputzak, baita gure psikeak ere. Azken finean, sexua generoarekin estuki loturik dagoen eraikuntza soziala ere bada. Ezaugarri sexualak kontinuum bat bezala ulertu beharko genituzke, kategoria binario zurrun eta baztertzaila gisa baino: badira zakila duten emakumeak eta badira alua duten gizonak, badira emakume eta gizon kategorietan identifikatuak sentitzen ez direnak ere. Mundua, irakatsi digutena baino anitzagoa baita. ◀



Mahaiaren inguruan ere elkartu ohi dira Mintza Egunean. ©EGIZU

Berbalagunak, Berara

Mintza Eguna jaiak hamar urte beteko ditu hilaren 30ean. Egitarau zabala prest daukate.

Euskal Herriko berbalagun edo mintzalagunen jaiak 10 edizio beteko ditu aurten maiatzaren 30ean eta, lehenenengo urtean bezala, Nafarroan izango da. Bortzirietako solaslagunak eguna prestatzen dabilta, mintzalagun eta euskaltzale denentzako jai-giro atse-

gina izan dadin. Bazkarirako izen-ematea hilaren 26ra arte egin daiteke, tokian tokiko mintzapraktikako dinamizatzaileen zein Euskaltzaleen Topagunearen bidez. Bazkariko txartelak 17 euro balio du, eta menu berezia behar dutenek aldeztu aurretik jakinarazi beharko dute. Garraioari dagokionez, Getxo udalerritik ez da autobusik aterako; egun berean Athletic eta Bartzelona futbol-taldearen arteko Espainiako Errege Kopako finala denez, ez dutelako espero jende askorik izena ematea.

Lehen Mintza Eguna 2005ean anto-

latu zuen Euskaltzaleen Topaguneak, Iruñean. Ordutik urteroko zita izan da, eta Euskal Herriko hainbat herritan ospatu da. Mintzalagun, berbalagun zein mintzakide denen jaia da Mintza Eguna. Egitasmoetan parte hartzen duten kideek elkar ezagutu eta egun pasa ederra egiteko antolatzen da.

Gogoratu Uribe Kosta eskualdean Egizu Getxo Euskaldun elkarteak (2008an antolatu zuen Mintza Eguna), Leioako Udalak eta Uribe Kostako Mankomunitateak martxan dauzkate-la berbalagun egitasmoak. ◀

Juan Gimenez eta Zulet komikigileak omenduko ditu aurten Getxoko Komiki Azokak

Getxoko Komiki Azokak zientzia-fikziozko istoriotxoaren erakusle nagusietako bat, Juan Gimenez egile argentinarra, eta eskarmentu handiko Zulet umore-komikigilea omenduko ditu aurten, Getxoko Kultur Etxeak jakinarazi duenez. Azokaren 14. ekitaldia azaroaren 20tik 22ra izango da; eta egitaraua zehazten hasi dira antolatzaileak. Egongo diren jardueren artean, *Las meninas* erakusketa nabarmendu dute; Santiago Garcia eta Javier Olivaresen eleberri grafikoaren inguruan osatu da eta Espainiako komiki onenaren saria jaso du aurtengo Bartzelonako Komiki Azokan.

Espezializatutako liburu-dendak, *merchandising* dendak, argitaletxeak, aldizkariak eta fanzineak batzen dituen saltoki-guneaz gainera, azokak jardueri ere lekua egingo die: proiektzioak, komiki-aurkezpenak, gonbidatutako artisten sinatze-txandak, mahai-inguruak, tailerrak, erakusketak eta abar, eta abar. ◀



Kartelaren osagarriak prest dauzka Euskal Herria Zuzenean jaialdiak. © EHZ

Uztailaren 3tik 5era izango da Euskal Herria Zuzenean jaialdia

Urtero legez, musika estilo askotako taldeak entzungai egongo dira uztailaren 3tik 5era, Baionatik 20 minutura dagoen Lekorneko Garroa gazteluan, Euskal Herria Zuzenean jaialdiaren barruan. Antolatzaileek apirilaren 27an aurkeztu zuten egitaraua, eta orain euren webgunean ipini dute ikusgai. Euskal Herriko eta kanpoko taldeek osatzen dute kartela. Lehenengoan artean, Anestesia, Ska-

keitan eta Joseba B. Lenoir Gang; eta bigarrenen artean, Deluxe frantziarrak eta The Coup estatubatuarrek, berbarako. Antolatzaileek ez dute gura EHZ kontsumo-gunea besterik ez izatea, publikoa eragile izan daitekeen jaialdia gura dute; hala, eztabaida-guneak antolatuko dituzte, besteak beste: feminismoa, sorkuntza artistikoa, eta beste hainbat gai jorratzeko asmoz. ◀

info+: ehz-festibala.eu

«Zalantzarik gabe, musikak bezala, sendabidea izan behar du arteak»

Lesagibel eskultore

nafarraren *N-estetika*

erakusketa maiatzaren 31ra arte ikusgai egongo da Algortako Torrene aretoan.

KEPA UGARTE MARTIARENA ►

Ogibidez baserritarra da *Lesagibel* ezizenez ezagutzen dugun eskultore autodidakta. Zuhaitzetik aretora, emozioak esnatu eta sentiarazi gura ditu, bere eskultura abstraktuen bitartez.

Zer aurkituko du *N-estetika* erakusketatik ikustera datorrenak?

Hasteko, presentazio arduratsu bat, berotasuna eta harrera ona aurkituko dituzte bisitariak. Nire ustez, lanek duten garrantzi bera du aurkezpenak berak. Bertzaldetik, ikusleek emozio ezberdinak topatzea eta disfrutatzea gustatuko litzaidake.

Zer adierazi gura duzu zure eskulturen bitartez?

Erabiltzen ditudan tresnak eta inguruan ditudan materialak abiapuntutzat hartuta, begiratzeko modu bat dira nire lanak. Forma eta koloreak, euskal eskultoreengandik jasotakoaren jarraipena izan daitezke, baita nire buruan sortu den estetikarena ere.

Estetikak ematen du horiek denak adierazteko bidea?

Erabat. Arteak, musikak bezala, sendabidea izan behar du.

Sendabidea bai, baina zelan?

Hari eroale bat bezalakoa da estetika; bizitza, sentimenduak, hausnarketak, poesia... laburbiltzen dituen.



Artista anonimotzat dauka bere burua Lesagibelek. Artelanak dira protagonista.

Azalduko diguzu zelan bihur daiteke baserritar bat eskultore?

Kasualitatez, baina oso erraza da. 25 urterekin koilaragile hasi nintzen arrazoi sinple batengatik: bizi naizen inguruan pagadi handi bat dago, eta bere baitan, kalitate handiko ezpela jaiozen da. Nafarroako dultzaina eta txirula gehienak hemendik ateratakoak dira. Inguruan betidanik egon da koilarak egiteko ohitura. Zizelarekin eta gubiarekin lanean hasi, baserrirako behar duzun kaprio bat tailatu... euskal artisautzan murgiltzea buruak eskatzen dizun pausoa da.

Eta hortik hasita, arte-mundura...

Euskal tailuaren oinarria den triangeluak egiten urte andana pasa ondoren, behe-erliebeekin hastea eta hortik eskultura exentua egitera pasatzea

naturala iruditzen zait, lanean aritzen bazara. Puntu horretan, errealismoa

“ Ez dut berritzailetzat neure burua. Egurrezko koilarak labanekin egiten zituzten artzainek ”

edota eskultura klasikoa dira erronka. Denborarekin, harria ere probatu nuen. Hori ere beste pauso bat baino ez da. Gero, atsedena hartu nuen. Eta orain bizitzen ari naizen fasea da ondorengo pausoa.

Beste materialik landu izan duzu?

Ez, bakarrik egurra eta harria. Burdina gustatzen zait, baina beranduegi da jada horretan aritzeko.

Zergatik lan abstraktuetarako saltoa? Jauzi hori eman nuen arte abstraktuan askeago sentitzen naizelako.

Zizeletik motozerrara... Euskal artisautzan berritzailea zaitugu?

Naturala iruditzen zait. Zizelekin hasi baino lehen, motozerra erabiltzen nuen baserri-lanetan. Ez dut berritzailetzat ikusten nire burua, artzainek koilarak labanekin egiten zituzten...

N-estetika-z gainera zer duzu buruan? Zer, eskuartean?

Lau erakusketa gehiago ditut: Lesakan, Gasteizen, Zizurren eta Iruñean. Sekulako lana... Bertzaldetik, lan berriak sortzen jarraitu nahi dut. Iaz Kultur Leioan egon nintzenean, jasotako iritziak oso hunkigarriak izan ziren... Ezin gehiago espero! ◀

**Gosariak,
Pintxoak,
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!!**

Bentatu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

ALURREN

GOSARIAK, PINTXOAK, KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA, Filipa Kalea 1 (Udaleko atzean)

**OIARBIDE
DEKORAZIOA**

Pladur, Tabikeak, zapalak, baloak
Eskaiola: moldurak, kornisak
Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...

Tf. 656 76 98 10 gorkaoliarbide@hotmail.com
Andikoetxe 2, GETXO

**Txakur
TZ
Zerbitzua**

Zu eta zure txakurra elkar ulertu behar duzue!
Bera ulertu eta berarekin komunikatzera
beharreko duzue.

LEHENENGO HITZORDUA DONDI!

Txi y tu perro tenéis derecho a entenderse!
Nosotros te enseñamos a comprenderle
y a comunicarte con él.

PRIMERA CITA GRATIS!

serviciocanino@yahoo.es
tel. 688.687.073

**Hurtzaindegitik batxilergora
arteko eskaintza**

Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus

ander deuna
I k a s t o l a

«Bertsolaritza tresna polita izan daiteke euskara biziberritzeko»

Maialen Lujanbio Zugasti bertsolari hernaniarraren arabera, lotuta doaz bertsolaritzaren etorkizuna eta euskararena. Dioenez, esparru biek euren zailtasunak dauzkate. Lurralde eta leku denetan egoera ez da berbera. Baina, Lujanbioren ustez, bertsolaritza osasuntsu eta indartsu dabil, eta aurrera egiten lagun diezaioke euskalgintzari.



KEPA UGARTE MARTIARENA

U ribe Kostako bertso-plazak ondo baino hobeto ezagutzen ditu Maialen Lujanbio Zugasti (Hernani, 1976) bertsolariak; urte hauetan guztietan, ez dira gutxi hernaniarrak eskualdean eskainitako saioak. Hain zuzen ere, hilaren 8an, Algortako Bertsolari Eskolak (ALBE) antolatutako bertso-afarian kantatu zuen Lujanbiok, Jon Maia zumaiarraz batera. Hori aitzakiatzat, 2009an Euskal Herriko txapela irabazi zuen lehenengo emakume bertsolariagaz berba egin dugu bere ibilbideaz zein bertsolaritzaz. Besteak beste, ALBE zoriendu du bere 35. urteurrenean.

Zelan hasi zinen bertsotan?

Ikastolako bertso-eskolan hasi nintzen 11 urte nituela, ez dakit oso ondo zer dela eta. Kanturako eta hizkuntzarekiko edo hitzekiko zaletasuna nuen... Ingaruko lagun batzuk bertso-eskolan hasi zirela sumatu nuen... Eta gero, pentsatzen dut, ikastolan kanturako tradizioa egongo zela eta Hernanin *Txirrita*-ren eta abarren berri izango nuela. Esan bezala, ikastolan hasi nintzen bertsotan. Izan ere, etxean edo familian ez dut bestelako bertsolaririk izan.

Gogoan duzu zure lehenengo bertsoaldia?

Benetako lehenengoa, seguruenik, Hondarribian, eskola arteko txapelketako saio bat izango zen. Bertan geunden 11 lagun gaztetxo, 11 edo 12 urtekoak. Egia esan, eskola arteko txapelketa izan da gure has-tapenetako plaza.

Gainera, hasieratik nabarmentzen hasi zinen.

Eskola artekoetan sari batzuk taldeka eta beste batzuk bakarka irabazi nituen. Urtero parte hartu genuen zazpi edo zortzi urtez, eta tartean sari batzuk ere izan ziren.

Hasierako bertso-eskoletako baten kide izan zinen.

Bai. Hernaniko bertso-eskola osatu zenean bertan hasi ginen jende helduagoarekin biltzen. Ni, egia esan, ez nintzen astero joaten zen horietakoa. Bai-

“Gaurko bertsolaritza entenditzeko mugarrria eta klabe nagusia bertso-eskolak dira; edo nagusietako bat, behintzat”

na, oraindik orain eskolako kidea banaiz. Gainera, bertso-eskola ez da bakarrik izan bertsoak egiteko lekua; lagun taldeaz aparte, herriko bertso-bizitza hauspotzen aritu da.

Agian zu izango zara bertso-eskolan sortutako lehendabiziko Euskal Herriko txapelduna.

Bai, horrela da. Adibidez, gure bertso-eskolan puntako bertsolariak badabiltza, esate baterako: Aitor

Mendiluze, Jexux Mari Irazu edo Unai Agirre; eta beste batzuk hain puntan ez dabiltzan arren, oso bertsolari onak dira...

Bertso-eskolek bertsolaritza aldatu eta gaurkotu egin dute?

Dudarik gabe. Gaurko bertsolaritza entenditzeko mugarrria eta klabe nagusia bertso-eskolak dira; edo nagusienetakoa behintzat. Ikustea besterik ez dago azken finalean parte hartzaile guztiak bertso-eskolan hezitakoak izan garela. Eta gaur egun plazaz plaza gabiltzan bertsolarien artean, helduenez aparte, beste guztiak, bertso-eskolakoak dira. Gaur egungo bertsolaritzaren errudun nagusietakoak dira bertso-eskolak.

Gainera, gero eta bertsolari gazteagoak topa ditza-kegu goi mailako bertsolari txapelketetan, ezta?

Bai, gaztetu egin da pixka bat. Baina, ez dakit zer esan. Helduek ere ez diote uzten eta maila bikaina ematen segitzen dute. Gero eta gazte gehiago dago, baina beteranoek eusten diote oraindik.

Euskal Herriko hamaika plazatan ibili zara. Gogoan-garrienetako bat?

Batetik, esango nuke, gure bertsolarien ibilian, nahiz eta txapelketak izaten diren ikusgarrienak, inportanteena beste hori dela: astebururo-astebururo plazaz plaza ibiltzea. Hori da gure jardunaren funtsa, kopuruz eta mamiz. Adibidez, Nafarroako Baz-



tango herri-bazkari batetik hasi eta Algortako Jaialdi Mundialarekin amaitu, ez daukate zerikusirik. Gainera, hori da ederrena; ez daukatela zerikusirik eta denek daukatela beren enkantu puntua. Zaila zait bat aukeratzea.

Euskal Herriko txapelketa irabazi zuen lehenengo emakumea zara. Zer suposatu zuen?

Nik uste dut hori izan zela mugarri sinboliko bat. Kanpotik begiratuta badauka garrantzia, emakume bat txapeldun izateak esan nahi duelako seguru aski ez dela emakume bakarra, badatozela gehiago atzetik eta bide bat eginga dagoela. Norbait horra iritsi bada bide bat ibilia dagoen seinale. Nik uste bide horrek daukala inportantzia eta, gero, txapelaren marka sinbolikoak ere badu esangura, baina aurretik eginga dagoen lan horrek du balioa; baita gerorako balio dezakeenak ere. Gaur egun gauza arrunta da emakume bat bertsotan ikustea. Neurri horretan balio du.

Horiek denak esanda, zein da emakumearen egoera gaur egungo bertsolaritzan?

Emakumeak bertsso-munduan gero eta gehiago gara; gero eta ugariagoak eta anitzagoak. Horrek ekarriko ditu beste diskurtso batzuk, beste harreman batzuk, gaiak buruzko beste irakurketa batzuk... Hori aberasgarriagoa da beti. Bestalde, halako ikuspegi sozialago batetik, esango nuke nahiko onartua dagoela emakumearen presentzia plazan, baina oraindik

badagoela zeregina. Beharbada, arlo bistakoenetan nahiko zuzena da egoera. Orain, pixka bat falta zaigu jarreretan eta maila inkontzienteago batean arakatzea; gaitegian, umorean eta abarretan, alegia. Ari gara eta uste dut denbora behar duela. Kezka konpartitua da eta lanerako ere jarrera ona dago.

Zelan ikusten duzu bertsolaritza gaur egun?

Nire iritziz oso indartsu eta osasuntsu dago bertsogintza. Plazaz plazako ibilian ikusten da; jendea

“ Emakume bat txapela irabaztera iritsi bada, atzetik gehiago datozelako eta bide bat ibilia dagoen seinale ”

etortzen da gu entzutera; bertsolari asko eta onak dabilta... Bertsolaritzak gauza bat dauka ona: nahiko autokritikoa da, beti dago bere burua kuestionatzen, Bertsozale elkarteak bultzaturiko mugimendua oso zabala eta indartsua den arren. Horrek mantentzen gaitu bizirik eta laguntzen digu bidean zuzen joaten. Alde horretatik, gaur egungo euskarazko kulturen mugimendu inportanteenetako bat da bertsolaritza eta horri eusten saiatzen ari gara.

ALBEri buruz

ALBE 35. urteurrena ospatzen dabil. Zelan ikusten duzu bere ibilbidea?

Bertsso-eskolen artean erreferente bat da ALBE. Benetan miresgarria da ze mugimendu sortu den; imajinatzea hastapenetan zer izango zen eta ze lan egin den; eta gaur egun zenbat gazte dauden eta ze ilusioz, fundamentuz eta kapazitatez lanean ari diren. Euskal Herrian daukagun bertsso-eskola indartsuenetakoa da. Zuen inguruan zenbat bertsso-saio mugitzen diren eta bertsso bizitza ze piztuta dagoen ere harrigarriak dira. Zoriontzekoa eta txalotzekoa da ALBEren ibilbidea.

Zer esango zenieke Uribe Kostako ikastetxeetan bertsolaritzan dabilzan ehunaka neska-mutilei?

Nik esango nieke niretzat izugarri mundu gozagarria dela bertsso-mundua eta merezi duela aurreratzea eta bertsso-mundua bizitzea. Eta ez derrigor bertsotan eginez; izan liteke zale, antolatzaile, laguntzaile bezala; edozein eratan. Saioak entzutera joanda ere bai. Niretzat oso gozagarria izan den hori beraiei ere opa diet.

Zer opa diozu ALBEri bere 35. urteurrenean?

ALBEri opa diot segi dezala beste hainbeste urtean gutxienez holaxe, jendea bertsotara zein euskarara erakartzen, eta Getxo inguruko bertsso-plazak betetzen.

Baina egoera ez da berbera leku denetan, ezta?

Bai. Esan behar da bertsolaritzaren egoera ez dela lurralde eta leku guztietan bera. Bertsolaritzaren etorkizuna lotuta egongo da euskararen etorkizunari, ezinbestean. Lurraldetik lurralde eta zonalderik zonalde aldatu egiten da, baina uste dut euskara berpizteko eta biziberritzeko tresna polita izan litekeela bertsolaritza.

Zelan ikusten duzu bertsolaritzaren etorkizuna?

Etorkizuna zelakoa izango den? Segun nondik eta ze luparekin begiratzen den. Nik bertsolaritzari etorkizun oparoa eta ona ikusten diot. Objektiboa pixka bat zabalduz, euskararen kulturaren baitan, bertsolaritzak baditu bere apustu eta zailtasunak, euskarak berak gaur egungo munduan dauzkanak. Eskala horretan panorama zailagoa ikusten dut. Baina, nire ustez, bertsolaritzaren bideak badauka zer erakutsi euskalgintzari. Bertsolaritzaren gauzak egiteko moduak eta logikak lagun dezakete beste esparruetan ere aurrera egiten.

Zein izan da zure ekarpena bertsso-munduan?

Bertsolari bakoitzak berea ematen dio bertsolaritzari. Gaur egungo bertsolaritza ez litzateke berdina izango Andoni Egaña gabe, ezta Unai Iturriaga, Amets Arzallus eta gainontzeko bertsolariak existitu ez balira ere. Bakoitzak jartzen dio bere alea. Eta ale txiki horien nahasketak kolore berezi bat sortzen du, garaian garaikoa. ◀



Leioaztarrek esker ona adierazi zieten zaleei, denboraldi osoan emandako sostenguagatik. © ASKARTZA I. E.

Askartza B taldeak mailaz igotzea lortu du

Askartza gizonezko waterpoloko bigarren taldea Espainiako Hirugarren Mailan nagusitu eta Bigarrenera igo da. Euskal Herriko Liga irabazteko borrokan dabil.

Zapatu honetan, Askartzako igerilekuek norgehiagoka garantzitsua hartuko dute: Askartza B waterpolo-taldea, Bidasoaren aurka. Arrastiko 19:30etik aurrera mutil leioaztarrek Euskal Herriko Ligaren bigarren partida jokatu dute, joaneko dema 6-7 irabazi izanak ematen duen lasaitasunagaz. Halere,

Leioara hurbilduko denak arrasti oso-ko kirol-jardunaz gozatu ahal izango du: 15:00etan, Harrobi Liga jokatu da; 17:00etan kimuen arteko finalaurrekoak izango dira: hasteko, Leioak eta Askartza Elephantsek elkarren aurka jokatu dute; ostean, Askartza Monkeys eta Maristak izango dira are-rioak, Euskal Herriko Ligako enfren-

tamendua hasi aurretik. Bertan galdu ala irabazi, inork ezin izango du ukatu Askartza B taldeak egundoko denboraldia egin duena.

Hiriburuan, nagusi

Leioako taldea «historia egiten dabil», Askartzatik harro onartzen dutenez. Maiatzaren 2an eta 3an Iruñean jokatu zen Espainiako Hirugarren Mailako Txapelketan, eta titulua irabazi zuen Askartzaren bigarren taldeak. Batez beste 16,6 urteko adina dute taldeko mutilek. Joan Albella eta Isusko Aria-

sen mutilek ez zuten inolako arazorik izan ligaxkan nagusitzeko. Estuago ibili ziren finalurrekoetan, Tres Cantos madrildarrak penaltietan garaitu baitzituzten. Finalean ere, 11-10 eskas batez irabazi zuten, Bigarren Mailatik iaz jaitsi zen Waterpolo 9802 taldearen aurka, hain zuzen ere.

Askartza izan liteke klub bakarra Espainiako Lehenengo zein Bigarren taldean gizonezko talde bana dituen. Leioaztarrek baliabide ekonomikoak topatu beharko dituzte, datorren denboraldiko lehiari aurre egin ahal izateko. Klubak gogoratu duenez, klub katalanek baino ez dute lortu kategoria bakoitzean talde bana izateari eustea. Han daude talderik onenak, eta waterpoloak onarpen eta babes handia ditu. 30.000 biztanleko Leioak, berriz, 3 talde ditu Espainiako Ligan, tartean emakumezkoen talde bat. ◀

Saioa Agirrek eta Nerea Linaresak Espainiako Txapelketa irabazi dute

Sakoneta gimnasia erritmikoko taldeko Saioa Agirrek eta Nerea Linaresak Espainiako Eskola Txapelketa irabazi zuten hilaren 3an, Avilan. Garaipena EAEko selekzioagaz lortu zuten. Leioaztarrek, Naroa Perez, Alicia Meana eta Ane Lezeagaz batera, hamar ariketetan 101.408 puntu batu zituzten, aurreko txapeldunak ziren Gaztela eta Leongo kirolariak gaindituz. Taldeko sariaz gainera, Agirrek urrezko bi eta brontzezko domina bat lortu zituen. Bestalde, Sakonetako Maddi Otaolak EAEko txapela irabazi du gazte-mailan, urrezko hiru domina eta zilarrezko beste bat metatuta. ◀



Saioa Agirre eta Nerea Linares, prestatzaile fisikoakaz, Avilan. © SAKONETA G. E. T.

Romok eutsi dio, Lehen Mailan jarraituko du

Romo Indupime eskubaloit-taldeak Espainiako Lehen Mailan jarraituko du datorren denboraldian. Izan ere, azken segundora arte ahalegin handia egin eta asko sufrututa, orain dela aste batzuk miraria zirudiena egin dute Gobelako mutilek: azken partida denak irabazi dituztenez, horrek Gaztelako taldean segitzeko aukera eman die. Amaierako enfrentamendua etxean jokatu zuten hilaren 3an, Kantabriako BM Corrales aurkako neurketan, hain zuzen ere. 24-22 emaitza estuaz nagusitu ziren; tentsio handiko partidari izandako zailtasunak islatu zituen markagailuak. ◀



Zarragaren ustez, azken mendi erdi luzean baldintza okerretan jardun du euskal sokatirak nazioartean: ofizialtasuna eta txapelketak lortu ditu, hala ere.

«Mundialak sokatira suspertzeko balioko du»

Jone Zarraga Eguzkitza
erandioztarra sokatira
munduan dabil txikitatik.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Zarragak 45 urte ditu, eta Euskal Herri-Kirol Federazioko ordezkaria da Nazioarteko Sokatira Federazioan (TWIF). Berriki, Suediako Malmö hirian egindako kongresuan, 2020ko Munduko

Lur Gaineko Sokatira Txapelketaren
egoitza Getxo izatea lortu du.

Zelan defendatu zenuten Getxo?

Aurkezpena oso ondo egin genuen, etxeko lanak oso ondo prestatuta eroan genituelako. Saldu genuen 2014a oso urte berezia izan zela guretzat, *Basque Country* selekzioak ofizialtasuna lortu zuelako; hura gure lehenengo kongresu ofiziala zela; badugula gogo handia munduko txapelketaren bat ekartzeko... Izan ditugu

aurretik: Faduran 1991n, goma gaineko; eta 1995ean, Gasteizen. Baina, ordutik ez dugu TWIFeko txapelketarik izan. Ofizialak izaten lagundu diguten herrialde denei eskerrak eman gura genizkiela azaldu genien, eta modurik onena denak hona ekartzea zela gure herria ezagutzeko, gure kultura, ohiturak eta hizkuntza erakusteko. Halaber, horrek aukera emango zigula sokatira herri-kirol bat baino gehiago dela erakusteko. Euskal Herrian jende askok ez dakielako zein hedatuta da-

goen munduan, ezta euskal taldeek zein maila ona duten ere. Berton sokatira suspertzeko txapelketa baliagarria izango zitzaigula esan genien, euskal taldeetan parte hartzen baduzu halako txapelketetara joateko aukera izango duzula ikusgai geldituko zen-eta.

Lehenengo biderrez, *Basque Country*
bere herrian ofizialki lehiatuko da.

Bai, hori da bereziena. Iaz Wisconsin-en ikurrina beste banderakaz ikus-tea guretzat ametsa izan zen. Aurretik txapelketetara gindoazen bakoitzean, ez genuen kirolean zentratzerik, nego-ziazioetan ibili behar genuen: «ez jarri bandera»; «ez gara espainolak»; «guk ez dugu kartelik edo ikurrik eroango, irabaziz gero», eta abar. Wisconsinen, TWIFeko presidentek esan zidan: «zelako lasaitasuna! Aurten kirolaz bakarrik arduratu beharra dugu».

TWIFeko presidentea 2007an aldatu izanak lagundu du?

Bai, asko. Halere, prozesua luzea izan da. Baina aurreko presidenteagaz ia-ia arazo pertsonal bihurtu zen. Bera joanda, hasi genuen beste negoziazio prozesu bat. Ez da erraza izan.

Barruko lanak ere egin dituzue.

Bai, eta hor Eusko Jaurlaritzarengandik laguntza handia jaso genuen. Kirol ezagutza eta TWIFeko historiaren berri bagenuen, baina juridikoki gabeziak genituen. Ateratzen ginen prentsan esanez «Euskal Federazioak badauka eskubidea», baina ez genuen txosten juridikorik. Jaurlaritzak guretzat beren-beregi egin zuen, eta horrek baliabideak eman zizkigun. Erakunde espainolakaz ere batu ginen. ◀

RENAULT
 Passion for life

Gama Renault LIMITED

Behar duzun guztia

12.000€-tik
aurrera*

Renault Limited gama: Kontsumo mistoa (l/100km) 3,5etik 6,2ra bitartean. CO₂ isuriak (g/km) 90etik 140ra bitartean. *Eskaintza hau eta PSE gomendatua Penintsulako eta Baltikotara da. Mota berriak Limited 1.6e BSW (115 ZPI) Euro 6 motorrekin. Beste dauka BEZA, motorkutako zerga, garraio zerga, RECSAK eskaintako promozioak eta PVE-7 planaren baliokide den deskontua. Balioak dira pertsonen erabilera, betiere, otsailaren 27ko 124/2015 Errege Dekretuak, jende irabazita dagoen "Irabazi Eraginorako Programari" buruzkoan (PVE-7) diru laguntzak erabiltzen diren arazoak aztertze aldiarekiko, esan behar baldintzek jasotzen baitira, eta Preference biko Fianztza zerbitzua S.A. Seguritatea, Espazioak, Fianztza zerbitzuak, 26 lehiaketak, Fianztza zerbitzuak gutxienez kopiatu, 6.000 €. Dagoeneko aplikatuak matorrak 7 urteko diru gehieneko, 2 urtez edo 30.000 km egin arte (lehenengo gertatzen dena). 600€-ko funtzionadun amek oraindik jarraitzen duen lehen urria. Motore-erakunde, Motorrenak eta seguruak REC-SAKen oparituak. Es da beste gaitza beste Fianztza eskaintza batzuk. Eskaintza honetako 2015/05/03 1.6a arte irabazita da, info.beste, "Irabazi Eraginorako Programari" bat indarrean sartu arte lehengo gertatzen dena. Irabazten ari diren modeluek: Renault Mégane Berlin Limited 1.6e BSW (115 ZPI) Euro 6 pintura metalizatzearekin, nabigazio paketa eta abateko gurpil amitoa eta Renault Scénic Limited Energy 1.6e BSW (115 ZPI) pintura metalizatzearekin. PSE gomendatuen sarbidaude promozioak eta PVE-7 irabazitako planaren baliokide den deskontua. 11.150 € eta 16.050 €-tik aurrera hurren.

Renault gomendatzen du elf

barcelona
world race

f YouTube renaul.es

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU www.bilboberberri.com

LEIOA BERRI AUTO IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL. 94 480 42 90. LEIOA www.renault.es/concesion/leioaberri

Barrikan udako campusa, prest

Barrikako Abaroa tenis-taldeak daborduko martxan ipini du Udako Campusaren seigarren ediziorako izen-ematea. Eki-mena 6 eta 14 urte bitarteko neska-mutilei zuzenduta dago, barrikoztarrak izan ez arren. Uztailearen 1etik abuztuaren 14ra egingo dute campusa, astegunetako goizetan, hiru hamabostalditan banatuta.

Campusaren hiru ardatzak tenisa, mota askotako kirola eta ingelesa izango dira, eta elkarbizitzagaz batu-ko dituzte. Jagoleakaz batu eta ekimene-tara abiatzeko, umeek eta gazte-txoek Barrikako udaletxearen aurrean egon beharko dute, egunero goizeko 9:30ean, eta gurasoak haien bila pa-

satu ahalko dira 14:00etan. Bitartean, neska-mutillak talde txikietan txanda-katuko dira, bi kirol mota eta ingelesa praktikatzeko. Halere, izango dituzte elkarregaz egoteko tarteak, goizeko 11:30eko hamaiketako, esaterako.

Izen-ematea

Interesatuak 185 euro ordaindu beharko dituzte, Laboral Kutxan hamabostaldi batengatik, edo 345 euro, hila-betegatik. Abaroaren webgunetik inskripzio-fitxa jaitsi eta bete ostean, elkartearen posta elektronikora igor daiteke, ordainagiriagaz batera. Era berean, badago eskuz ematerik. ◀

Info+: Barrikateniskiroaltaldea.blogspot.com
barrikatenistaldea@gmail.com / 655 709 693



Talde txikiak egingo dituzte, adina eta tenis mailaren arabera. © ABAROA T. K. T.



Leioakoek ezin izan zuten Sarrienen kategoria finkatu. © LEIOA KIROL ELKARTEA

Leioa Bigarren B mailan geratzeko borrokan da

Denboraldiko helburua matematikoki betetzeaz hiru puntura dago Leioa, azken partidaren faltan. Domeka honetan, arrastiko 17:00etatik aurrera, David Movillaren mutilek Getafe B taldearen aurka ebatziko dute: Bigarren B Mailan jarraituko duten ala jaisteko play-offen errusiar erruletan sartuko diren. Hori, jakina, futbolarien greba bertan behera gelditzen bada, telebista eskubideen banaketa dela-eta deitutakoa. Bestela, Getafen egin beharreko partida atzeratu, eta tentsioa hainbat egunez edo astez luza liteke. Urdin-gorriei garaipenak besterik ez die balio izango Madrilgo lurre-

tan; beren kabuz bakarrik eutsi gura badiote, behintzat. Bestela, Las Palmas Atleticok egun eta ordu berean Donostian Realaren aurka egiten duena berdindu beharko dute leioaztarrek.

Hortaz, kanariarrek berdindu edo galduko balute, hurrenez hurren berdinketa edo galera ospatu lezakete Sarriena-koek Getafen, kategoriari eutsiko bailiokete. Izan ere, leioaztarrek 15. daude sailkapen taulan 45 puntugaz, kanariarrek baino puntu bat gehiagaz. Halere, kanariarrek euren alde dute batez besteko golen emaitza. Leioak Getaferako autobusa antolatu die zaleei. ◀

Autobus eta partidarako txartelak: 944 609 062

Gorliz Badiako Triatloia izango da domekan

Domekan, Gorlizetik bere triatloia-aren IX. edizioa hartuko du. Euskal Herriko triatloi-zirkuiturako 5. proba puntuagarria da, eta esprint-distantzian jokatu da. Proba goizeko 10:00etan hasiko da. Hasieran, kirolariek 750 metro egin beharko

dituzte igerian, Gorlizko hondartzatik atera eta hara bueltatu. Ostean, bizikletaz, 28,5 kilometro egingo dituzte Lemoiz, Maruri-Jatabe, eta berriro Lemoiz eta Gorliz zeharkatuta. Azkenik, 5.000 metro osatu beharko dituzte oinez hondartzan. ◀

Elaia Torrontegi Errusian da, Munduko lehian

Elaia Torrontegi taekwondolari plentziarra Errusian da, pasa den martitzenetik. Domekara arte, Chelyabinsk hirian egiten dabilta Munduko Taekwondo txapelketak, eta plentziarra bertan parte hartzen dabil, 46 kilo azpiko modalitatean. ◀

Lucia de la Puerta, indartsu EAEko deman

Lucia de la Puerta Jolaseta taldeko tenisleriak Mungiako Laukariz auzoan jokatu du EAEko txapelketa irabazi du, gazte-mailan. Gazteak 6-1 eta 6-1 irabazi zion Naiara Uriarteri. Iruñean izango den Espainiako txapelketarako sailkatu zen. ◀

PINTXOAK
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK-BOKATAK-PLATER KONBINATUAK
AFARIAK ETA URTEBETETZEAK
ENKARGUZ
Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA

GURE ETXEA
taberna
HAMBURGESA, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Amiluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Horoskopoa



Ura

(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Bizitza laburra da, eta ondo pasatzen duzunean, are gehiago. Baliatu aste akabuko jaiak, eta disfrutatu lagunakaz.



Adarra

(Otsailak 19-Martxoak 20)

Musika, dantzatzeko aukera, giro ona, jan eta edana... Getxoko jaiak zure zain daude. Begiratu egitaraua, eta ez galdu ezer!



Hostoa

(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Daborduko ahaztuta duzu Maiatzaren Leheneko zubia, eta, oraindino, asko falta da oporretarako. Ono do pasatzeko, bilatu inguruan, jaiak dira-eta.



Garia

(Ekainak 19-Uztailak 18)

Hauteskunde-kanpainak zoratu zaitu daborduko? Amesgaiztoak dituzu alkategaiakaz? Lasai hartu, gutxi falta da-eta.



Iratzea

(Abuztuak 18-Irailak 16)

Bidaia hartuta duzu, eta, bat-batean, arazoak sortu dira. Baliteke azkenean plan osoa bertan behera gelditzea, baina ez duzu esperantza galdu behar.



Hazia

(Urriak 17-Azaroak 15)

Telefonoa jo eta ke dabil egunotan, isildu barik. Agian gutxiago joko luke, noizbait eskua luzatu eta hartuko bazenu.



Negua

(Azaroak 16-Abenduak 20)

Telebistaren urrutiko kontrola sakatu eta sakatu, baina ez dago ezer kanal batean ez bestean ere. Ahaztu horiek, eta jarri ikusteko duzun film hori.



Otsoa

(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Begi polit horiek berriro ikusteko premiaz? Lasai, pentsatu plan eder bat, telefonoa hartu eta proposa egiozu. Zorte on!



Aitzurra

(Martxoak 21-Apirilak 19)

Aste osoa lanean eman ostean, merezi duzu parrandan lagunakaz ibiltzea, baina ez litzateke txarto egongo aurretik etxea txukun uztea.



Eguzkia

(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Ados, bere urtebetetzea ahaztu egin zitzaizun, baina nori ez zaio horrelakorik gertatzen? Aitzakiarik ez jarri. Hobe duzu afari gozo batera gonbidatzea.



Lastoa

(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Behar han dia egiten zabilta, jen de guztiak esaten dizu. Oso ondo dago zure lana baloratzea, baina ez legoke txarto horren arabera ordaintzea.



Meta

(Irailak 17-Urriak 16)

Duda-mudan zabilta jaietara joan ala ez. Ono pasatuko duzu, ziur; baina komeni baino gehiago kargatuko zara. Badaezpada, joan.

Soluzioa



Denborapasa

Zazpi ezberdintasunak



I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

GAVRKº



GIZONENTZAKO
MODA

Zabala 9
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84



Basagoiti 73, 48991 ALGORTA
TF. 946 12 07 52
facebook/RebelTattooAlgorta



© IRUNE URIARTE

Teilatuetako betibizia, belarri-belarra *Sempervivum tectorum*.

Sendabelarrak

Naturaren altxor ahaztua



IKER RINCON MORENO

Gizakiak betidanik izan du sendatzeko beharra, eta horretarako, hasiera-hasieratik naturarekiko harreman handia izan du, landareetan aurkitzen zituen-eta gaitzetatik sendatzeko bideak. Gaur egun, ordea, ohikoa da, gaixo jartzen garenean edo minen bat dugunean, medikuarengana jotzea edo farmazian erositako pilularen bat hartzea. Hala ere, historian, gure arbasoek bazituzten euren burua sendatzeko bestelako moduak.

Antzina medikuak ez ziren nonahi aurkitzen; hori dela eta, mendeetan belaunaldiz belaunaldi transmititu izan dira gaixotasun eta gaitz zehatz batzuk sendatzeko moduak; eta herri-jakintza horren baitan, sarritan sendabelarrak erabili izan dira, besteak beste. Aurreko belaunaldietakoek naturagaz zuten harremanaren ondorioz, oso handia zen horren inguruan zuten ezagutza; hori dela eta, bizirauteko beharrezkoa izan da ingurua probetxuz ustiatzea. Sendabelarren gaineko ezagutza ahoz aho transmititu da belaunaldiz belaunaldi: zelan desberdindu; zeintzuk diren onuragarriak; zeintzuk kaltegarriak; noiz batu behar diren, eta zelan prestatu. Hala ere, gaur egun, ahozko transmisio hori eten egin da.

Uribe Kosta eskualdean historian erabili izan diren sendabelarren inguruan ikertu du Josu Aurrekoetxea algortarrak; Biologiako Gradu Amaierako Lanean egin du ikerketa. Berak dioenez, XXI. mendean gizakion beharrianak erabat aldatu dira, eta urte luzez bizirik iraun duen jakintza hori desagertu

zear dago. Hainbat faktorek eragin dute jakintza horren desagertzea, berbako, boterearen presioak eta farmakologiaren agerpenak. Botereak presio handia egin du herri-jakintza hori desagerrarazteko; izan ere, osasungintza kontrolatzeak herria kontrolatzea dakarrela dio Aurrekoetxeak, «beti egon da interesa herriari botere hori kentzeko». Era berean, azken mendeetan egon den bizimodu-aldaketak ere eragina izan du horretan. Garai berriotan farmakologia suspertu egin da, eta farmakoak eskuragarri daude.

Sendabelarrek garrantzi handia izan dute historian; hala ere, gaur egun horien erabilera asko ahaztu dira transmisio faltagatik

Horiek landareen erabilera baztertu dute. Sendabelarrak «atzerakoiak» diren ideia gailendu da, «base-ritarrek eta ezjakinek» bakarrik erabiltzen dituztelakoan. Izan ere, gaur egun indarrean dagoen ideien arabera, «modernoak izateko medikuarenera eta farmaziara jo beharra dago», azaldu du algortarrak.

Ikuspuntuaren aldaketa horrek historia luzea du. Aurrekoetxeak dioenez, gaitzak osatzeko sendabelarrak erabiltzen zituzten herritarrenganako jazarpena XVI. mendean Durangon ematen zen; elizaren eta inkisizioaren aginduz, pertsona horiek sorgintzat jo-

tzen hasi ziren. Adibide bat baino ez da hori, baina «oraindik ere ideia hori inkontzientzia kolektiboan dago», Aurrekoetxearen arabera.

Farmakologiak eta «mediku gorbatahunek» giza-kion burujabetza hautsi dutela salatu du Aurrekoetxeak. Gorputza eta osasuna ulertzeko modua asko aldatu da, urteen poderioz. Lehen, bestelako mundu-ikuskera bat zegoen; gaitzak lasaigarri naturalak eta deskantsuagaz tratatzen ziren, eta belar bat edo beste erabiltzen zen, minaren arabera. Berbarako, buruko minerako hainbat tratamendu zegoen, berbarako: kafea eta txikoria hartzen zen ajetarako. Lehengo osasungintzan, ikuspuntu humanistago bat erabiltzen zen. Kezkaren bat izanez gero, horren zergatia bilatzen zen. Gaur egun, oster, osasuna beste modu batera ulertzen da, gehienbat kimika erabiltzen da gaitzetarako. «Farmakologiak erreazio kimiko bat eragiten dizu. Minen bat dagoenean, analgesikoak ematen dituzte, anestesiatzeko eta listo. Hala ere, gaitzak hor jarraitzen du, baina ezkutatuta dago», salatu du Aurrekoetxeak. Hala ere, algortarrak dioenez, orain iraultza bat gertatzen dabil. Jendea sendabelarren eraginkortasunaz jabetzen ari da; gaur eguneko medikuntza-ereduaz kexu da gizartearen zati bat, eta herritar horiek beste bide batzuen bila hasi dira, «eta konturatzen hasi dira aurretik egon den gizakiak izan duela soluzio hori; soluzio bat egon dela herri-jakintza batean eta herri-medikuntza batean».

Sendabelarrak Uribe Kosta

Esan legez, gizakiak historiaurretik izan ditu loturak sendabelarrakaz; gaixotasunak sendatzeko erabili izan dira urte luzeetan. Jakintza hori jasotzen

**Asuna** *Urtica dioica*.**Mamukia** *Malva sylvestris*.**Intsusa** *Sambucus nigra*.**Zain-belarra** *Plantago lanceolata*.

Josu Aurrekoetxea algortarrak Uribe Kostako sendabelarren inguruko ikerketa burutu du EHUKo Biologiako Gradu Amaierako Lanerako. Denera, 16 herritar elkarrizketatu eta eskualdean aurki daitezkeen 52 landare jaso ditu lanean, horien erabilerak eta kontsumitzeko moduak deskribatuz.

lehenengokoetarikoa Dioskarides greziarra izan zen. Dioskaridesek 77. urtean idatzi zuen *De Materia Medica* lana. Horretan, egileak Mediterraneo aldeko 600 landare-espezie batu zituen, eta bakoitzaren erabilera eta prestatzeko errezeta jaso zituen. Mila urte baino askoz gehiago igaro dira lan hori egin zenetik, eta orain Josu Aurrekoetxeak antzeko lana burutu du, Uribe Kostara mugatuta: *Uribe Kostako etnobotanika. Sendabelarrak*. Horretan, algortarrak 2014ko udan eta udagoienera 16 herritar elkarrizketatu zituen, eta jasotakoari esker, 52 landare-espezieren erabilerak deskribatu ditu. Halaber, Uribe Kostak sendabelar horiekaz izan duen harremana ikertu eta kontsumitzeko moduak jaso ditu.

Aurrekoetxeak 52 sendabelar jaso ditu lanean, nekazaritzaren bidez hazten direnak eta baso zein zelaietan aurki daitezkeenak

Eskura egon direnak izan dira Uribe Kostan gehien erabili diren landareak, besteak beste: mantzanilla, iodo-belarrera, sasia, intxaurra, eukalipto, tipula eta berakatza. Aspalditik sukaldean egon diren barazkiak, barbarako, gaitz normalen kontra erabili izan dira; gaitz zehatzetarako, oster, bestelako belar batzuk, Aurrekoetxeak dioenez.

Sendagai natural horiek prestatzeko orduan, gehienetan infusioan edo egosita erabili direla azaldu du Aurrekoetxeak. Hala ere, freskoan ere kontsumitu izan dira asko, olioagaz nahastuz, ukenduak. Horrez gainera, herri-medikuntzan bestelako osa-

gai bat dagoela dio algortarrak, errezoak eta *sana-teneak*, besteak beste; «tradizio pagano batetik datozen errezoak asko erabili izan dira hemen; erritual modukoak ziren».

Landare bakoitzak printzipio aktibo bat dauka, eta horiek gorputzean barneratzea da helburua. Hori horrela, urteetan pilatu den jakintzagaz lortu da jakitea zein den modurik egokiena printzipio aktibo horiek gorputzean sartzeko. «Kasu batzuetan, ikusi da hobeto sartzeko delat infusio batean, landare horrek uretan uzten dituelako propietateak. Beste batzuetan, agian ez du zentzurik infusioa egiteak, eta fresko aplikatzen dira, azalean, barbarako. Erabileraren eta printzipio aktiboaren arabera prestatzen dira sendabelarrak», azaldu du Aurrekoetxeak.

Lanean deskribatu duenez, bildutako 52 landareek hainbat erabilera dituzte: 18 eskrezio-aparatuan erabiltzen dira, 17 azalean, 12 arnasa-aparatuan, 11 digestio-aparatuan, 10 zirkulazio-aparatuan, 9 sintoma orokorretarako, 7 lokomozio-aparatuan, 5 zentzumen-organoetan, 3 nerbio-sisteman eta 2 ugal-aparatuan. Hala, aplikazio gehien dituen landarea *Allium sativum* (berakatza) da, 10 erabilera dauka. Horren ostean, *Equisetum telmateia* dago (luki buztana), 7 erabileragaz; eta *Allium cepa* (kipula), 6 erabileragaz. *Urtica dioica* (asuna), *Verbena officinalis* (berbena) eta *Mentha suaveolens* (batana) espezieek 5 erabilera ezberdin dituztela deskribatu du Aurrekoetxeak. Beste landare gehienek, berriz, erabilpen bakarra dutela dio, ala asko jota bi.

Lanean deskribatutako landare batzuk barazkiak dira, eta gizakiak nekazaritzaren bidez hazten ditu. Beste batzuk inguruko baso eta zelaietan berez hazten diren landareak dira. ◀



Luki-buztana

Equisetum telmateia. *Equisetaceae* fam.

Azeri-buztana.

Prestakuntza: Egosita.

Aplikazioa: Eskrezio-aparatua, ilea, azala.

Erabilera tradizionala: Gure eskualdeko herri-medikuntzan presentzia handia eduki du luki-buztanak, hainbat gaitzen kontrako sendabide legez. Erreka bazter zein leku hezeetan aurki dezakegu landarea, eta ia urte osoan dago eskuragarri. Erabilerarik arruntena eskrezio-aparatuarentzat da; izan ere, egosi eta ura hartuz gero, funtzio diuretikoa dauka. Beste erabilera batzuen artean, horregaz egositako ura ilean aplikatuz gero, ilea indartzeko balio du, edo zauriak garbitzeko desinfektatzaile bezala ere erabili izan dutela jaso du Aurrekoetxeak zenbait elkarrizketaren artean. Beste batzuek azido urikoa eta gotaren kontrako erremediotzat ere erabili dute ur hori: baraurik basokada bat hartu goizero 20 egunez, gero 10 eguneko deskantsua. Landare hori kontsumitu ahal izateko, eskegi egiten zen leku aireztatu batean, ganbaran esaterako; eta behin lehortuta, kristalezko boteetan gordetzen zen, urte barruan behar zen momentuan kontsumitzeko, etxeko botikinetan ezinbestekoa izan da.



Indipikua

Opuntia ficus-indica, *Cactaceae* fam.

Prestakuntza: Fresko (zukua).

Aplikazioa: Arnasa-aparatua.

Erabilera tradizionala: Landare horrek berez latitude baxuagoetan du bere jatorria, baina Uribe Kostako hainbat baserriren kanpoaldean aspaldidanik landatu da. Arnasa-aparatuaren gaitzetarako erabili dute eskualdeko arbasoek *Cactaceae* familiako landare hori. Pala baten itxura hartzen duen hosto handiek likido likatsu bat gordetzen dute barruan, eta palari berari gurutze forman egindako ebaki bati esker, zukua atera egiten da. Zukua azukre apur batez nahastuta hartu izan da jarabe gisa, katarroak eta hotzeriak osatzeko. Daborduko gutxi entzuten da, baina garai batean oso ohikoa zen kukurruku-eztula sendatzeko ere erabiltzen zen.



Mundukatuak

Itsaso Bilbao Gofinondo getxoztarra

«Etxean alkohola izateko, lizentzia bat behar duzu»

Itsaso Bilbao Gofinondo getxoztarra Emirates aire-konpainiako hegazkineko laguntzaile lanean hasi eta Dubaira bizitzera joan zen, 2013ko urtarrilean, munduan zehar bidaiatzeko «egundako aukera» eta lan baldintza «oso onak» lortuta. Bertan bizi dira konpainiako 20.000 langileak, hilean 10 edo 15 egunez, lanaren arabera.

Jan eta edana

Dubai desertua izanda, bertoko jaki gutxi dute: datilak, gamelu-okela eta arraina. Ia beste guztia kanpotik ekartzen dute; horrenbestez, ia denetarik dago. Salbuespenen artean, herrialde musulmana baita, txerriak daude: topa daitezkeenak karu saltzen dituzte. Bilbaok Euskal Herrira egindako bisitak baliatzen ditu horrelakoak erateko. Edariei dagokienez, te asko edaten da. Alkohola, berriz, «debekatuta dute musulmanek», baina denen esku-

ra dago hotel eta taberna gehienetan. Hori bai, atzeritarrek etxean alkohola gorde ahal izateko, lizentzia bat atera behar dute. Hala, langileen auzoetan «giro handia» dago egun osoan, eta jendetza dago merkataritza-guneetan

“Dubain martxa itzela dago, parrandarako eskaintza oso handia eta ugaria da”

zein hondartza ederretan. Gauean ere, gura izanez gero, «martxa itzela dago, parrandarako eskaintza oso handia eta ugaria da». Parrandak bi ezaugarri nagusi ditu: karua da, eta kanpotarrak dira denak. Bestalde, herrialdearen nortasuna arin aldatzen da eguraldiagaz batera. Urtean tenperatura 20 eta 30 gradu

bitartekoa izaten da, baina ekainetik irailaren amaierara arte 45 gradura hel daiteke termometroa. Bitartean, urte osoan lauzpabost aldiz baino ez du euririk egiten. Bilbaok aitortzen duenez, «euskaldun batentzat harrigarria da euririk ez izatea». Halere, eskertzen du eguzkia.

Zer ikusi

Burj Khalifa Dubain dago, munduko dorrerik altuena. Bestalde, Creek ize-neko langile etorkinen auzoa erosketan merkeak egiteko aproposa da, bertakoen lan-baldintzak eskasak baitira. Kontrastea eginez, Burj Al Arab zazpi izarreko hotela kilometro gutxira dago, eta itsasoan eraikitako palmondo itxurako eraikinak zein Dubai Mall munduko merkataritza-gunerik nagusienetako bat ere bai. Halere, politenatarikoa Dubai iturria da, gauean musika eta argiz apaindutakoa. ◀

NOR DA

Nongoa

Getxokoa, sendi osoa bermeotarra izan arren.

Adina

29 urte.

Zertan dabil

Hegazkineko laguntzailea da Emirates konpainian.

Ikasketak

Turismoko graduduna.

Noiz arte Dubain?

Aitortu duenez, «nekatu arte, edo etxean lan onen bat aurkitu arte».

NON DAGO



Herrialdea

Arabiar Emirerri Batuak.

Azalera

4.114 km².

Hiria

Dubai.

Biztanleria

2.262.000

Hizkuntzak

Arabiera da bertoko hizkuntza, eta ofiziala den bakarra. Golkoko arabiera da ohiko mintzaira. Halere, biztanleen %83 etorkinak dira, eta, horren eraginez, hamaika hizkuntza hitz egiten da bertan. Kanpoko hizkuntzarik erabiliengak dira: ingelesa da; urdua, hindia, persiera, bengalera, punjabera, paxtuera, malaysiera, tamilera, telugu, balutxera, tagalo eta txinera ere garrantzitsuak dira.

Dirua

Dirham.

HIRUKA Koop. elk.

Helbidea: Martikoena 16, 2. solairua 48991 GETXO

e-Posta: hiruka@hiruka.eus

Posta Kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Erredakzio-burua: Irantzu Sagaminaga

Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Julien Nafarrate, Iñigo Fernandez de Martikorena

Argazkiak: Hodei Torres

Diseinua: Jorje Perez eta Eñaut Etxebarri

Publizitatea: Erika Martinez eta Ninbe Landa

Kudeaketa: Zortza Merino

Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA

Lege Gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95 CC-BY-SA

Ale-kopurua: 8.000 ale



Erakunde laguntzaileak:

